

2007ko abenduaren 20a • XXVII. urtea
www.ttipi.net



Merkatarien Elkarreak Eguberrien atarian 04

Eguberriak gainean ditugu eta dudarik gabe kontsumoak nabarmen eginen du goiti. Saltzaileak garai honetarako nola prestatu diren galdetu diegu merkatariei.



Nafarroako Sokatirako txapela Amaiurren da 39

Gizonezkoetan Nafarroako goma gaineke sokatira txapelketako lehen bi postuak Amaiurrera joan dira. Emakumeetan Beti Gaztekoak bigarren eta hirugarren izan dira.



TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN ESKUTIK

03 Salgai dago Euskal Artzainak Ameriketara DVD bilduma

ZORIONAK
Bisita gaitzazu

ORDOKI
altzariak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia
ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA

FUTBOLA GUSTOKO DUT

ETA CANAL+ EN DENA DAUKAT

CANAL+ hilabetean
19,95 € tik hasita

Orain, eguneko partida bat opari bi hilabetez

Harpidetza egiteko etorri
BORTZIRIAK
Bidasoa, 45 • BERA
edo 948 630 377ra delitu

DIGITAL+

BORTZIRIAK, S.L.

Elikamtra... 2007/09/01... Antena eta... BORTZIRIAK, S.L.

DENDETAN SALGAI

39,95€

Euskal Artzainak AMERIKETAN

6 DVD



DVD 1- LABURPENAK:
Kalifornia • Nevada

DVD 2- BAKERSFIELD EUSKAL BESTA
(TURRIRIA FAMILIA)

DVD 3- BASQUE HOTEL • SANTA FE JATETXEA
SAN FRANTZISKO EZAGUTUZ

DVD 4- SAN FRANTZISKO EUSKAL ETXEA
SAN FRANTZISKO EUSKAL BESTA

DVD 5- PETALUMA EUSKAL BESTA • RENO EZAGUTUZ
JOXE MALLEA • EZAGIRRE FAMILIA

DVD 6- WINNEMUCA
WINNEMUCA EUSKAL BESTA

Eguberri hauetako oparia

{6 DVD kutxa bakarrean bilduak}

"Euskal artzainak Ameriketara" egitasmoarekin, Tipi-Ttapa Fundazioak gizatalde hari buruzko informazioa jasotzeko eta hedatu nahi du. Sei DVDtan banatuak, 80 pertsonen lekukotasunak biltzen dira, 2007ko uda hasieran AEBetako Kalifornian eta Nevadan zehar hiru astez egindako elkarrizketak. Ibilbideari hasiera emateko, Bakersfieldeko (Kalifornia) euskal bestan egon ginen. Maiatzaren 27an izan zen hari. Mila lagun ingururen topaleku bihurtu zen Kern Count Basque Cluba. Gehienak baztandarrak, baina baita inguruko bertzeherrietatik joandakoak ere. Bakersfieldetik Fresno, San Frantzisko, South San

Frantzisko... eta Petaluma, eta hor, Euskal Etxeak antolatutako bertze besta baten lekuko izan ginen. San Frantziskoko Euskal Etxearen 25. urteurrenaren harira egindako besta izan zen Petalumakoa. South San Frantziskon, AEBetako Euskal Etxeen arteko mus txapelketaren lekuko izan ginen. Eta irabazleen artean, sunbildar bat. Eta Kaliforniatik Nevadara: Reno, Carson City eta Winnemucca. Bestarik handiena Winnemuccakoa izan zen, NABOk edo Euskal Etxeen konfederazioak bere urteroko biltzarra baitzuen Winnemuccan.

ttipi-ttapa fundazioa 2007

info@ttipi.net
www.ttipi.net



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA TELEBISTA

Bertan Baztango Merkatarien Elkarteko 73 saltokik publizitate kanpaina sendoa egin du Eguberrien atarian. Argazkian Baztan-Bidasoaldeko telebistetan emititu den iragarkian parte hartu duten merkataria batzuk ageri dira.

ESKUALDEKO MERKATARIEN ELKARTEAK EGUBERRIETAN

Sakelak prest? Badatoz Eguberriak

Beharko sakelak prest eduki! Eguberriak gain ganean ditugu, eta dagoeneko eginak ez badira, laster opariak erosiko beharko ditugu. Kontsumitzailea gastuaren zurrubiloan murgiltzera bultzatzen dituen garaiak dira Eguberriak, eta badirudi ia ezinezkoa dela ez gastatzea. Ez bada gastatzen, Eguberriak ez ditugula behar bezala ospatzen ematen du. Kontsumitzaile bakoitzak ohi baino %5 gehiago gastatuko du Eguberrietan. Nafarroako Estatistika Institutuaren arabera, familia nafar bakoitzak Eguberrietan 900 euro inguru gastatu zituen joan den urtean. Horietatik 278 euro janari eta edarietara joan ziren: arrain eta mariskoa, bildotsa, ardoa eta cava, turroiak...; bertze 252 euro jostailu eta oparietan gastatu zituen. Eta jakina, garai honetan ohikoa dena loterian 90 euro gastatu zituen bakoitzak iaz. Gainontzekoa bidaietan eta bertzelako gastuetan joan zen. Aldaketa hauen guztien aitzinean, komertziantek era berezian prestatzen dira Eguberrietarako, saltokiak kanpotik apainduz eta eskaintza zabalak eginez, bertzeak bertze, erosleak sarituz.

Gurutze PIKABEA

Gero eta ohitura haundiagoa dago herrietako denda ttikiak utzi, eta hirietako merkatalgune haundietara jotzeko. Nafarroan, erraterako, elikagaietan denda ttikiak duten merkatu kuota %20koa da, eta arropa denda %35ekoa. Hori dela eta, herrietako saltokien bilakaera elkarrean biltzea izan da. Elisabet Azkarate Nafarroako Komertzioen Federazioko kudeatzaileak «*batasuna ezinbertzekoa*» dela erran digu, «*bakarrik lortu ezin diren helburuak lortzeko*». Eta hori da, Bertan Baztango Merkatarien Elkartea, Doneztebarrak Merkatarien Elkartea, Berako Larun-Haitzpe Elkartea eta Lesakako Zerbitzu Elkarteen kasua. Hiri bazterretako saltoki erraldoien indarra haundia den garaietan, erantzuna herrietatik dator. Denek ere helburu argia dute: herria bizirik mantendu, eta herriari mugitu.

mendua ematea. «*Jendearen gustuko herria egitea*», dio Rosa Lasaga Lesakako Bixkiak dendako jabeak eta Lesakako Zerbitzu Elkarteko diruzainak; «*Herriari bizitasuna ematea*», Maite Zozaia Doneztebeko Tximista dendakoa eta Doneztebarrak Merkatarien Elkarteko diruzainaren hitzetan. «*Denok denon beharra dugu, eta merkataritza gune haundiei aitzin egiteko aukera bakarra da*», dio Neli Yanci Vitalicio Aseguruak eta Bertan Baztango Merkatarien Elkarteko batzordekideak. Hain samurrak ez diren garaiotan hainbat kanpaina lantzen dituzte urte osoan merkatarien elkarrekin, eta Egu-berrietarako ere prestatu dira.

BAZTANEN EROSLEEN

FIDELTASUNA SARITZEKO ASMOZ

Baztanen sendo dabilta Eguberriak prestatzen. Lehenbizi marrazki lehiaketa egin zuten, Eguberrietako kartela iragartzeko. «*Kartel hori Eguberrietako kanpaina parte hartzen ari garen merkataritza guztien ekimena da*», dio Nelik. Aurten ez baitute elkarteko bazkide guztiek parte hartu. Iaz bezala, jendearen fidelotasuna saritzeko asmoz, fidelotasun txartelaren kanpaina paratu zuten abian azaroaren 12an. Fidelotasun txartela betetzeko zigilua jaso daitekeen saltokiak dira ekimenaren barne daudenak. Fidelotasun txartel hori 12 zigilurekin osatu behar da, baina denda edo merkataritza bakoitzak ezin du hiru zigilu baino gehiago eman. Horren helburua, «*jendea denean ibiltzea da*», adierazi digu Vitalicio Aseguruak-ekoak. Urtarrilaren 8a bitarte luzatuko da kanpaina, eta orduan egingen da 60 saritik goiti banatzeko zozketa. «*Herritarrei eskerrak emateko modua da*», Neliren hitzetan.

Gisa berean, abenduaren 10ean erakuslehoi lehiaketa abiatu zuten. Ikastaro bat ere egin zuten horren inguruan. Ortziral honetan, hilak 21, bukatuko da lehiaketa, eta lau lagunek epaimahaiak erabakiko du zeini eman saria. Eta egutegia da Bertanen bertze egitasmoa. Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko etxeetan dohainik banatu dute. Baztango argazkiekin osatu dute egutegia eta azken orrian, elkarteko telefonoak bildu dituzte.

Publizitate kanpainak ere egin dituzte. Ttipi-ttapa eta Xaloea Telebistetan eta Xorroxin Irratian emititzen ari dira. «*Iragarki horietan jendea kanpora joaten bada, hemen bizia galtzen duela islatu nahi dugu*».

Beran, abenduaren 26tik 30era haurrentzako parkea antolatu dute: puzgarria, haurrentzako tailerrak...

Donezteben, Eguberrietan murgiltze-ardura hasiko dituzte ekime-

ETA ARRAIOZKO MERKATARITZA GUNEAREKIN ZER?



ARTXIBOA

Merkatalgune haundiek merkatu kuotaaren %80a dute elikagaietan, eta saltoki txikiak gainerako %20a.

Komertziantek ez dira aldekoak

Jakina da merkataritza gune haundiek ez dietela mesederik egiten herriko saltoki txikiak. Betidanik egon da merkatalgune haundietara joateko ohitura: Donostia, Irun, Iruñea... Baina edonola ere, hemen ere aukera zabalago dago. Horretan bat datoz merkataritza guztiak. Orain, ordea, arazoa ez dator hiri bazterretatik. Eztabaida orain Baztanen dago, Arraiozen. Aurreikusia dagoen merkataritza gunearen proiektuaren arrastoak ikus daitezke. Lurra mugitzen hasiak dira. 2005eko urte hasieran Baztango Udalaren hasierako onespina erdietsi eta gero, Ur konfederazioak eta Nafarroako Gobernua geldiarazi egin zuten Urteloren enpresak aurkeztutako proiektua, erreka bazterrean egonik uholdeak izateko arriskua zegoela irizita. Lehen proiektu hartan, ezetza eman zen, baina joan den urteko azaroan, Gobernuak baimena eman zuen 49.000 me-

tro koadroak landa eremu izatetik zerbitzu arloa bideratzeko. Lehen mugimenduak egiten hasiak dira, baina merkataritza ez dira horren aldekoak. Elisabet Azkaratek azaldu digunez, «*Elizondotik kanpo egitea hanka-sartzea litzateke, komertzioaren deslokalizazioa eraginen bailuke. Elizondon egokiagoa litzateke, tokiko komertzioak bultzatzeko*». Rosa lesakarrari «*gaizki iruditzen zaio egitasmoa*». «*Denak lanean ari gara, ahalik eta hobekien, eta herriko komertzio txikiak kalte egingen lioke*». Maite Zozaia ere eragina somatuko dutela dio. Eta bide beretik jo du Neli Yanci ere: «*Baimenak lortzea ez dago gure esku eta ezin dugu aunitz egin. Udalarekin egon garenetan, ez dugu erantzun garbirik jaso. Momentuz, lurra mugitzeko lizentzia bakarrik dutela erran digute. Ez dakiguna da, benetan horrela den ala ez, ez dugu deus garbi*».

nak. Hasteko, ortziral honetan, Santo Tomas Eguna dela eta, txistorra jatea egingen dute. Gainerako xehetasunak Maite Zozaia argitu dizkigu: «*Erausketa bat ere antolatu dugu, emakumeen elkarteari eskutik. Eta abenduaren 25etik aitzinera, haurrentzako tailerrak egingen dira egunero, eta ortziral batean gaztain jatea egitea ere pentsatu dugu. Iaz bezala, urtarrilaren 5ean, Kalbagataren ondotik, merkatarien elkartekook osatutako lotea ere zozketatuko dugu. 2.000 euroko balioa duen lotea, eta horretarako aitzinetik txartelak egonen dira salgai. Egu-*

berri guztietan lotea erakuslehoi batean egonen da ikusgai». Erakuslehoi lehiaketa ere egingen dute.

Lesakako Zerbitzu Elkartean, azaroaren azken astean, kanpaina berezia garatu zuten. Lehenbizi erakuslehoi lehiaketa egin zuten eta jendeak erantzun ona eman zuen. Eta kanpainarekin bukatzeko, azaroaren 27an kontsumitzaileen eguna egin zuten. Bertze kanpainarik egingen dute galdetuta, «*Eguberrietan denak oso lanpetuak egoten gara, eta martxo aldera kanpainaren bat egingen dugula*», azaldu digu Rosak.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Gurutze Pikabea.
Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iratzoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Kontseilua: 10 urte euskararen normalizazioaren alde

Erakunde baten bizitzan, euskararen normalizazioa helburu duen erakunde baten bizitzan 10 urte ez dira gehiegi, ezta gutxiegi ere. Hamar urtean gauza asko gertatzen da eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluan joandako hamar urteotako lorpen nagusiak zenbatzeko bi eskuetako atzamar guztiak behar ditugu:

Bat. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluan bildu dugu euskalgintzaren zati esanguratsua (46 eragile) euskararen normalizazioan aurrera egiteko helburu konpartitu eta bakarrarekin. Euskararen unibertsoan lanerako planeta kokatu genuen.

Kontseilua osatzen duten bazkide bakoitzaren zereginarekin guztiak elkarlanean Kontseiluaren atarikiplean lan eskerga egin da. Besteak beste euskalgintzako elkarten arteko ezagutza eta lotura areagotuz, eta euskarak dituen beharretaz guztien artean gogoeta eginez.

Bi. Euskal Herriko

bost kirol estadiotan herritarren ahotsa entzunarazi genuen, 120.000 lagun "Bai euskarari" bateratu eta indartsuarekin.

Hiru. Gizarte-eragilearen babesa bilatu dugu. Gure jarduna elkarlanean oinarritu dugu. Hori dela eta, hainbat herritarren administrazioarekin, erakunderekin, sindikaturekin, eragile politikorekin eta enpresariarekin lanean dihardugu.

Lau. Euskal Herriko lurralde guztietako 121 herritara hedatu dugu euskararen aldeko mezua "Bai Euskarari Akordioa Herrietan" proiektuaren bidez. Horri esker, Tafallan, Amurrio, Uztaritze, Basauri eta Donostian lan egiten dugu, besteak beste.

Bost. Lan-mundua euskalduntzen laguntzeko tresna asmatu dugu: Bai Euskarari Ziurtagiria. Enpresa eta bestelako entitateek euskararen alde hartzen dituzten neurriak kreditatzeko sistema eta tresna sortu dugu. Proiektu berritzaile honek jada Euskal Herri osoko 1.500 entitatetan eragitea lortu du.

Sei. Hizkuntza-eskubideak babesteko tresna abian jarri dugu: Hizkuntza-Eskubideen Behatokia. Herritarren

kexa eta zorionean lan egiten du zuzenean, abian jarritako 'Euskararen telefonoa' ren bidez.

Zazpi. Gizartearen-gandik etengabeko laguntza jaso dugu. Are gehiago, norbanakoek euskararen aldeko konpromiso zehatzak hartu dituzte.

Zortzi. Nazioarteko hainbat instituzio eta erakunderekin harremanetan gaude, eta hizkuntza gutxituei buruzko foroetan izan gara.

Bederatzi. Hizkuntza-politika eraginkorrak lortzeko eragite-lana burutu dugu EAEn, Nafarroan eta Iparraldean. Halaber, Euskal Herriko 66 udalerriren hizkuntza-politika neurtu dugu normalizazioan aurrera egiteko abiapuntua definituz, eta ildo beretik jarraituko dugu.

Hamar. Eskarmentu hau guztia metatuta hamaika gehiago ditugu egiteko. Eta gogotsu ekingo diogu euskararen normalizazioaren bideari. Horretarako, bidelagunak behar ditugu, "Euskaraz bai" ozen esateko zure ahotsa behar dugu.

Bidegune honetatik eskerrak eman nahi dizkiegu bidaide eta laguntzaile izan ditugun guztiei; zuri ere bai, noski; orain arte egin duzu-

narengatik eta etorkizunegingo duzunarengatik.

Era berean, euskararen alde gaudenon indarrak bildu nahi ditugu. Kontseilua osatzen dugun erakundeok, 'Euskaraz bai' adierazpena prestatzen ari gara, euskararen egoera azaldu eta etorkizunerako erronkak azalduko dituen. Adierazpen honen bidez Euskal Herri osoko eragilean atxikimendua biltzea dugu helburu. Denon ahotsa behar dugu, "Euskaraz bai" argi eta garbi entzun dadin.

Xabier Mendiguren
Kontseiluko idazkari nagusia

OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izenditurak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertze-la, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokiak izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

Toailak-Mantelariak-Oheto maingirak Eskolako haurren mantalak etab... bordatzen ditugu
Herriko bestetarako, kamisetak, eta blusa peña bakoitzaren logotipo eta izenekin bordatzen ditugu
Ezkeri Plz. Berria 4-ra eta ikusi bertako enkantea!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

BAR
BOTXO
OSTATUA
© 948630052 • Zalain • BERA

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 • BERA

Donostiako Zientziaren KutxaGunea bisitatzeko **20 SARRERA** zozketatzen ditugu



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Deitu lehenbailehen
Gonbidapen bakoitzarekin 2 sarrera
(heldu 1 + haur 1)



Miramon. Zientziaren KutxaGunea.
Mikeletegi, 43. 20009 Donostia Gipuzkoa

ttipi-ttapa

948 635 458

info@ttipi.net • www.ttipi.net



Pentsatu duzu Eguberrietako oparia?

BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA - BIKE

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!!



Kanttonberri, 1 · BERA
948 63 12 18

Kotoi

- Gortinak
- Estoreak
- Etxerako ehungintza
- OsagarriaK

eguberri on!!

Bidasoa 14 · 31780 Bera T.F. 948 631 660

edurne
HAUR ARROPADENDA

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!!

Altzate, 20 · BERA · 948 631 491

Gozotegia
Malkorra

Urrekin egina
Tartak eta pastelak
Etxean egindako izozkia

Santiago, 15 · Tel: 948 580 061 · ELIZONDO

GOYA

- Baserritar jantziak
- Arropak
- Trango marka
- Maindireak
- Mantak
- Toallak
- Gortinak
- Alfonbrak

EGUBERRI ON !!
Altzate, 5 · BERA
948 630 083

MIRARI PREMAMA

Zitox II edo jantziak behar duzun gutxi daukaguz!

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!!

Harisera
LENCERA

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!!

Jaime Urrutia, 43
ELIZONDO
948 581 301

Parrokia, 11
DONEZTIBE
948 450 112

IBARROLA
Haurrendako arropa

0-14 urte
Parrokia kalea 6 · Doneztebe
948 450 463

lilura
ileapaindegia

ZORIONAK

Rosa Seminario, 17 · DONEZTIBE
Tfnor: 948 451 961

Oñan eta emakumeendako
Muga-ondoko kolore eta errakera



IPINGI

Sartegi 88 • ELIZONDO • 948 580 308
ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!

- Atropa formalak eta informalak
- Komplementuak • Bitxak
- Eskulapintzako materialak

EGUBERRIETAN ARRATSALDEZ ERE IREKITA
abenduak 15, 22, 29
urtarrilak 5

ZORIONAK
LURRINDEGIA
APAINDEGIA

- Sotatum berrak
- Esentzia eta magariak
- Lintxoak
- Kremak zantifikatzaileekin
- Esentzia esentziak berrak
- Auzpeko tratamendu pertsonalizatuak

Amaya 81g • DORZTIBI
Tfn: 948 450 163

ARKUPE

Goxotegi • kafetegia

- Tarta bereziak
- Etxeko izozkiak
- Arkupe txokolatea:
kakaotik egindako txokolatea

IRURITA - Tfn: 948 452 021
ELIZONDO - Tfn: 948 452 393

Pimpurin

PELUQUERIA • ILEAPAINDEGIA

Aitziber
Ubiria Santesteban

EGUBERRI ON!!

Plaza zaharra 26
31770 LESAKA
Tfn: 948 63 80 37

-%10

Zure urtezahar gauerako

Lurrin eta kosmetikako KUTXETAN

Aukera zabala larrukietan, jantzietan, bitxietan, elikagaietan eta edsrietan.

XABI BENTA • Arnegi / LAPITXURI BENTA • Dantzarinea / MIRENTXU BENTA • Ibardin

Erlategi plaza, 4
ELIZONDO • 948 581 822

ESKIZ

INFORMATIKA ZERBITZUAK

- ORDENAGAILUAK • INPRIMAGAILUAK • TAILER PROPIOA
- MULTIFUNTZIO-INPRIMAGAILUAK • ZERBITZU PROFESIONALA
- IKASTAROAK (hasmenta, irudi digitala, Office, internet...)
- KONTABILITATE ETA FAKTURAZIO PROGRAMAK
- WEB ORRIAK

EGUBERRIETARAKO
ESKAINZA BEREZIAK

Pentsatu duzu Eguberrietako oparia?



the cote

2283 PRODUKTU € 1en

2283 produktu € 1en

Kantaberri 8
DERA (Nafarroa)
Tel: 94825285

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!!



MERCE
MODA HOMBRE

Serapio Mujika, 11 - 20302 IRUN - Tel: 943 612 626

CAPELETTI

Mendibil Merkatal Zentroa
20302 IRUN • Tfnoa: 943 624 672

ZORIONAK ETA EGUBERRI ON!!



ederne
Centro de Estético

- Aurpegi eta gorputz tratamendua
- Estetika dekoratiboa
- Makillajea
- Manikura eta pedicura
- Ile kentze mota guztiak
- Solariuma
- Ariketa eta terapia

EGUBERRIETAN OPARITU EDERTASUNA

Berrotaran, 7 behea • 20302 IRUN
Tfnoa: 943 63 24 84



mirentxu

Likidazioa erreformagatik
% 70a
bitarteko deskontuak

- 20 euro baino gehiago, prezio gutxiagoak
- Baita ezko egutako sarrerak

Serapio Mujika 15 • 943 618 833 • IRUN
Orduza kalea 5 • 943 881 278 • GROZTA



OSTARGI OPTIKA

Bilaka karrika, 8
31789 BEIRA
948 630 753

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!!



CASA OSTIZ

ZAPATA-DENDA • TABAKO-DENDA
LIBURU-DENDA • PAPERTEGIA

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!!

Parrikia 17 • DONEZTEBE
Tfnoa eta Faxa: 948 450 289
costiz@telefonos.es



Comercial Maria Jesus

Burdindegia • epazterako gauzak • Pintura
Sukaldeko tresneria • Barneko arropa • Dinetakoak
Plaza Zaharra, 28 • LESAKA • 948 637 105 - 948 637 220

J.C. TROPERNA
Rta. Zita 60000
MAPFRE



intzuri
OPTIKA

Naiara Alberro Retegi
Optiko-Optometrista

ikusmenaren azterketa,
begi tentsioaren neurketa
lentilen egokitzea,
lanerako babes
betaurrekoak, ...

Bittiria 36 | LESAKA |
t: 948.627550 |



bixkiak
arropa denda
KIROL ETA MODAKO ARROPA DENDA



MERTZERIA
Deñe
LENTZERIA

Behoko Plaza 10 • LESAKA • Tfnoa: 948 627 514

MARIAN
MENDIBERRI ORKIN

Lurrindenda
Estetika
Opariak
Bitxiak
Osagarriak
Arropa

ZORIONAK ETA UNTEBERRI ON!

Behoko plaza, 8 • LESAKA • 948 637 791

BITTIRIA
ARDOTEGIA

Tfnoa: 948 627 508
Bittiria, 61 • LESAKA

EGUBERRI ON!!

panpina

Haurrendako behar duzun guztia

DENDA BERRIA LESAKAN

Jostailuak, biberolak, ekupeteak, termoak, nezesereak, paretel ekologikoak, haurrak eramateko moodelak, bandoleerak, fularrak...

Produktu naturalak bittiria, 45 LESAKA
948 637 523

ENDANEA
HAZTEGIA

Zatoz loreak ikustera, gustura aterako zara

Ordutegia:
Astelohetik larunbatera
9:00 - 20:00
Asteburu eta Jai egunetan
9:00 - 13:30

Jaizubia Auzoa, 40
HONDARRIBIA
Tfnoa: 943 641710
www.endanea.com

baserritar jantzielan aukera zabala

FANTXIKE
Jaime Urrutia, 15 Elizondo

etorri Fantxikera jostailuak ikustera



-%20 Zure urtezahar gauerako
beroki, gaueko jantzi eta oinetakoetan.

Aukera zabala larrikietan, lurindegian, bikinietan, elikagaietan eta edarrietan.

XABI BENTA • Amegi / LAPITXURI BENTA • Dantzarinea / MIRENTXU BENTA • Ibaridin

Josta Mendak
Artaleku, 3 • IRUN
943 638 223

Prim, 59 • DONOSTIA
943 470 244

- Pasiorako kotxe eta aulkiak
- Seaska, moises eta binerak
- Autorako segurtasun-aulkiak
- Jaiotzako opari zerrenda

**LARUNBAT
ARRATSALDEAN
IREKIA**

Tel.: 948 45 00 28
Donostia

Bokatak

AMEZTIA

Hostala • Jatetxea • Ostata
Jolas Parkea

BOKATAK ERAMATEKO

Zatoz asteburuetan
bokatak eta pintxoak dastatzera

Espezialitateak:
arrainak eta haragiak parrillan
Garaiko barazkiak

OSTATUA:
948 450 028

JATETXEA:
948 451 902

Ameztiako langileok eskerrak eman nahi dizkizuegu
bezero guztiei gurera etortzeagatik.

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!

ANSONEA HOSTALA
ARTIEDA ESTANKOA
BAZTANGO INMOBILIARIA
BERAWIN ASEGURUAK
BETI JAI OSTATU-JATETXEA
BIDAXKA OSTATUA
BORTZIRUDI FOTOKOPISTEGIA
BOTXO OSTATUA
CHURRUT HOTELA / **LENKONEA** JATETXEA
ELORTZIRI ARRAINDEGIA
ERRANDONEA FRUITU ETA BARAZKIAK
ERREKALDE OSTATUA
ESTIVALTOUR BIDAIAK
GLOBAL ENGLISH AKADEMIA
GOXO GARBILEKUA
IKUILU OSTATUA
ILAIK ILE-APAINDEGIA
KARLOS ALTZUGARAI FISIOTERAPEUTA
MANUEL LANZ AHOLKULARITZA

AGARA KIROLAK
ARTIEDA LENTZERIA
ARTURO ARROPA-DENDA
AYLA ARGAZKIGINTZA
AZALEA LOREDENDA
BEEP BERA INFORMATIKA DENDA
EDURNE HAUR ARROPA-DENDA
ELKAR PAPER-DENDA
EXPERT-BORTZIRIAK
GOIKO ARGAZKIAK
GOYA
GURIA DROGERIA

IGONE PAPER-DENDA
JAIONE GOZOTEGIA
KALASH BTXI-DENDA
KALOTXA ZAPATA-DENDA
KATEA BIKE
KOTOI DEKORAZIOA
MARTZUTZAK ARROPA-DENDA
OSTARGI OPTIKA
PURIENEA PRENTSA ETA ALDIZKARIAK
SAROB OKINDEGIA
ZELA KIROLAK

KARLOS ITURGINTZA
LABEZAR OKINDEGIA
LIXOIA OSTATUA
MANOLO FERRETERIA
OROZ JANARI-DENDA
PIKABEA HARATEGIA
PRIETO ESTANKOA
SENPER AUTOESKOLA
SUSANA JANARI-DENDA
TELLETXEA JANARI-DENDA
TXALUPA ARRAINDEGIA
TXEPETXA ALBAITARITZA
TXOMIN IRAZOKI FISIOTERAPEUTA
UGALDEA AHOLKULARITZA
XIRGIL ILE-APAINDEGIA
YESOLA JATETXEA
YOAN ILE-APAINDEGIA
ZUBIONDO JATETXEA



bera
 • merkatarien, ostalarien eta zerbitzu enpresen elkarteak
 • asociación de comerciantes, hosteleros y empresas de servicios

EGUBERRIETAKO PARKEA
 haurrentzako puzgarriak, tailerrak, etab.
 Abenduaren 26tik 30era bitartean
 Ordutegia: 11:30-13:30 / 15:00-19:00
 Eguneko sarrera: 3€
 Bost egunetarako bonoa: 10€

BERAKO SALTOKI GEHIENAK
ABENDUAren 22 eta 29an
URTARRILAren 5ean arraltsaldez ere zabalik

DANTXARINEAko Landibar
IBARDINGO Venta Peio
LUZAIDEko Venta Peio
BEHOBIAko Marionnaud-en

USAIN GOXOEN TXOKOA aurkituko duzu. Markarik ezagunenetan

ROCHAS, CHRISTIAN DIOR, BOTHERM, CLARINS, CHANEL, GUERLAN,
IVES SAINT LAURENT, PACO RABANNE, THERY MUEBLER, ARMANI...

EUSKAL HERRIKO PREZIORIK HOBERENAK

VENTA PEIO



IBARDIN • (0034) 948 630 719

Landibar



ZENTRO KOMERTZIALA • (0034) 948 599 400

VENTA PEIO



LUZAIDE



M^o Juncal Landibar, 13 B (Behobia) • (0034) 943 631 011

Eguberrietako
egun berezi hauetan
gustoko opariak
egin eta jasotzeko

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



DIARIO DE NAVARRA, 2007-11-28

«Nafar guztientzat Xabierreko Gaztelua leku berezia dela uste dut, fededuna izan ala ez. Niretzat leku honek bere xarma du, familia-rekin eskiatzera joaten nintzenean, aunitzetan gazteluan gelditzen ginen. Gustukua dut lekua, bakea adierazten dit, eta bizitzari buruz hausnartu eta pentsarazi». «(...) Hondarribiatik Xabierrerako bidean igarotako sei orduok pentsatzeko aukera ematen dute, eta Xabierreara ailegatzeari aitzinera ateratzea gustatuko litzaidakeen proiektu bat eskatu dut».

Patxi VILA
Berako txirringularia
D. Navarra 2007-11-28

«Abokatu batzuk ibili ziren auzia begiratzen eta ikusi genuen Elizak bere izenean jarri dituela Leitzako eliza, abadearen etxea, ondoko baratzea eta ermita. Hilerria ez dute erregistratu. Hilerria gustua baita». «Ikertzen segituko dugu, badirelako dudazkoak diren beste bi eraikin. Gogoa badago, baina denbora behar da, eta pertsona bat jarri behar da horretan lanean. Ni arratsalde batez egon nintzen begiratzen, eta ikusi nuen artxibozahar gehienak elizari buruzkoak direla».

Xabier ZABALO
Leitzako alkatea
BERRIA 2007-12-12

• 11 GALDERA LABUR •

Urtezahar Egunean marka berria ezarri nahi duzu, 290 kiloko harriarekin. Nola ikusten duzu zure burua?
Entrenamenduetan gehiena egina dago eta orain zaindu egin behar dut. Minak eta lesioak ebitatu eta puntu-puntu joan beharko nuke.

Altxatuz gero, 23 urterekin Saralegiren marka berdinduko zenuke...
Bai baina nik hori ez nekien, orain gutxi esan didate. 16 urterekin 210 kilo jaso nituen, 17rekin 240.. Orduan adinari begiratzen da, baina behin puntu batera ailegatuta, ez zaio begiratzen besteek noiz egin zuten zer.

285 kilotan duzu azken marka. Bost kilo bost dire!

Bai! Otsailean egin nuen 285ekin ahalgina, eta aurreko marka 2005eko azaroan. Hau urtea pasatu gabe tokatu da, neguan beti bezala. Bost kiloka ari naiz eta hemendik aurrera... Kilo asko dira eta koska haundiak.

Egun hori prestatzen, nolako da Inaxioren egun normal bat?

Urtezahar Egunean arratsaldean egiten dut ahalgina. Normalean eguerditan nahiago izaten dut baina tira. Arin bazkaldu eta ia gosearekin joan behar dut. Eginez gero, orduan gustura!

Nola entrenatu duzu? Noiztik zabilza entrenatzen?

Udan erakustaldiak daudenez, ezin da gogor entrenatu, baina ariketak egiten hasia nintzen gero ez agujetarik izateko. Erakus-

taldiak bukatzean entrenatzen serio hasi nintzen.

Zein da aitaren aholku nagusia...

Horrelakoetan berdina, lasai hartzeko eta dena ongi kolokatzeko.

Marka egitea lortuz gero, ez litzateke 2007a bukatzeko modu txarra!

Baina ez bada ere, mentalizatua nago beste saiakera bat egiten dudala.

Marka egin ala ez, Urtezaharra non ospatuko duzu?

Herrian bertan.

Harrijasotzaileek urteko zein sasoi-tan deskantsatzen dute?

Harriak jaso gabe ezin dut hilabete batez egon, gainera ahaztu egingo litzaidake! Marka hau eginez gero, esku batekin 230koarekin saiaturiko naiz eta lortzen badut, uda bitarte lasaiago ibiliko nintzateke.

Pasatu dituzun plazen artean, buruan gelditu zaizun uneren bat?

Plaza eta jasoaldi guztiak bereziak dira, etxean izan edo urruti, eguraldi txarra edo ona izan, jende gehiago edo gutxiago, beti saiaturen naiz onena ematen.

Aurtengo urtearen balorazio bat...

Suerte eduki dut ez dudalako lesiorik izan eta 31n marka egitea urtea bukatzeko modu polita.



Inaxio PERURENA
Leitzako harrijasotzailea

usk r r z zk t

2 zk n u r n 13 n 12 n n r z k
H r k E x n t u l z k n n z a n
z z k t u z n a r t u h r k 3 n k k

IZI EUSK

S I U N K

13 zk .Tx r n s uru k n tu

122 7 zk r t z r k E t x -t r s n k n tu

23 zk \$ n J n X r K r t k n tu

SUSZ / k

MONTSE ILUA

sl k ttipi ttapa

EUSKAL KULTURAREN ERKIDETZA

EUSKAL KULTURAREN ERKIDETZA

HONDAKINAK

Zaborren urteko tasa 17,5 euro igoko da Baztan, Bortziriak eta Malerrekan 2008an

Enpresentzat, berriz, tasa hori 22 euro igoko da

ttipi-ttapa

Nafarroako Hiri Hondakin Solidoen Partzuergoan dauden bederatzitaude mankomunitateetan zaborren tasa igotzea da urte berria hastearrekin batera. Mankomunitate horien artean daude, hain zuzen, Bortziriako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea eta Baztango Udala. Aitzitik, Leitzaldeko herriak, Urdazubi eta Zugarramurdi Partzuergoan ez daudenez ez da zerga hau aplikatuko.

Etxebizitza arruntetan 17,5 eurokoa izanen da urteko tasaren gobera; eta enpresen kasuan, 22 eurokoa. Tasa berri horrekin 2008an 1,7 milioi euro bilduko dira, eta horrez gain, Nafarroako Gobernuak 2,6 milioi euroko laguntza emanen du. Diru hori hondakinak Tuterako El Culebrete biometanizazio plantara garraiatu eta han dagokien tratamendua egiteko bideratuko da. Aipatzekoa da, zabor tona bakoitza behar bezala tratatzeak 50 euro balio dituela.

Gauegun, Nafarroako Hiri Hondakin Solidoen Partzuergoa Nafarroako bederatzitaude mankomunitatek osatzen dute: Malerreka, Bortziriak,

Baztango Udala, Zangotza, Mairaga, Izarbeibar, Erribera, Erriberagoitia eta Eska-Salazar. Horietaz gain, Montejurra eta Sakanakoekek ere partzuergoan sartzeko asmoa dutela adierazi dute, baina horren tramitazioa bertze hilabete batzuek luza-tuko litzateke. Behin horiek biak sartuta, Nafarroa osoan lau mankomunitate geldituko dira partzuergoan sartu gabe, gehienak Nafarroa iparraldean.

Bertzalde, Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio Departamentuak bertze 5,4 milioi euro emanen ditu Nafarroan egiten diren hiru transferentzia gune eraikitzeko. Hiru plan-ta berezi horietako bat Baztanen izanen da, Zozaiian, eta Tafallan eta Zangotzan bertze biak. Gune horietan mankomunitateetako zaborra bildu, banatu eta trinkotu egiten lukete garraio gastuak murrizteko, eta gero dagokion tratamendua gunera eramanen lukete. Gaur egun, horretarako bakarra dago, Tuteran. Partzuergoan dauden mankomunitateen hondakinak kudeatzeko nahikoa da, baina Iruñerriko Mankomunitatea partzuergoan sartuz gero, bertzelako irtenbidea bilatu beharko litzateke.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Europar onartutako araudiari jarraiki, ibardingo zaborte-gia urriaren 31n itekoa zen bertze hainbatekin batera, baina oraindik martxan dago.

2008ko egutegiak etxetik etxera

Bertzalde, birziklazioa zeinen garrantzitsua den jabetzeko, 2008ko 9.000 egutegi banatuko dira Baztan, Bortziriak eta Malerreka-ko etxeetan. Lameriñas eta Ondikolek ateratako animalien argazkiekin osatu dute egutegia, eta herriz herri zabor berezien bilketaren egunak eta ordutegiak zein diren zehazteaz gain, ahokuak eta intereseko telefonoak ere ageri dira. Horrez gain, egutegi bakoitzak zenbaki bat darama, eta zenbaki hori heldu den urteko ekainaren 30ean Malerreka-ko Mankomunitatean (Doneztebe) egiten den zozketan parte hartzeko da. Saria irailan bi lagunentzako Kanariar Uharteetan aste bateko egonaldia da.



Barceló

BIDAIAK

EGUN PASA eskiatzera:

ASTUN / CANDANCHU:
Autobusa + forfita + aseguru + gidaria.

GOURETTE:
Autobusa + forfita + gidaria.

ASTEBURU PASA eskiatzera:

ASTUN / CANDANCHU:
Autobusa + hotela 2 gau, gosariarekin + forfita 2 egun + aseguru + gidaria.

BAQUEIRA / BERET:
Autobusa + hotela gau 1, gosariarekin + hotela gau 1, bazkaria edo afariarekin + forfita 2 egun + aseguru + gidaria.

FRANTZIAKO PIRINIOAK:
Autobusa + hotela 2 gau + forfita 2 egun + gidaria barne.

IRTEERA BEREZIAK
EGUBERRIAK, ERREGEAK, ASTE SANTUA...

Plaza Zaharra, 4
31770 LESAKA (Nafarroa)
Tfnoa: 948 638 179
lesaka@barceloviajes.com

BERA

FLASH

Olentzero, Diostesalbe eta glin-glanekin agurtuko dugu urtea

Hilaren 31n, lehenbizi haurrak eta helduak gero, eskean ibiliko dira

Amaia eta Ainhoa

Urtea bukatzeko egun gutti falta dira eta urtero bezala, garai honetan ospakizun bereziak izanen ditugu. Hilaren 24an, Olentzerori ongi etorria egingen diogu eta horretarako arratsaldean herriko haurrak Eguberri kantak abesteko bilduko dira. Aurten 17:30ean Herriko Etxeko Plazan elkartuko dira denak. Ilunabarrean gazte eta helduak aterako dira herriko karraketan abesteko. Urteko azken egunean, berriz, bi ekitaldi ezberdin izanen dira: Glin-glan eta Diostesalbea. Arratsaldez haurrak auzoz auzo eskean ibiliko dira. 15:00etatik aitzinera etxeko atarietan *glin-glan*, *glin-glan*, *duenak ez duenari eman* kantatuko dute eta goxokiak bilduko dituzte. 18:00ak jotakoan, aldiz, gazte eta helduak kantuan ibiliko dira urte zaharra agurtu eta berriari ongi etorria emateko.

Erbi ehizarako debekua

Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteak abenduaren 4tik aitzinera, zonalde batean erbi ehizan aritzea debekatu du. Horrela, muga



UTZITAKO ARGAZKIA

Errandonea txapelkun Lizarran Abenduaren 9an jokatu ziren Lizarrako VI. Lau t'erdiko Txapelketako finalak, benjamin (99koak eta 98koak), alebin (97 eta 96koak) eta infantil mailan (95ekoak). Bortzirietako bi ordezkari baziren finaletan, eta tartean beratar bat. Gainera txapela eskuratuta etorri zen. Alebin 97koan Ander Errandonea herritarrak Iruñeko Joanes Bakaikuri 18-16 irabazi zion. Hirugarren urtea zuten elkarren aurka jarraian, eta aitzineko bi urteetan Errandonea azpitxapelkun gelditu bazen ere, oraingoan, txapela janzteara lortu zuen. Argazkian Unai Zamorano lesakarrarekin ageri da Ander —ezkerrekoa—. Lesakarra, infantil mailan azpitxapelkun izan zen, Olanon leitzarraren kontra 15 eta 18 galdu ondotik.

honen hegoaldean ezin izanen da ehizatu: Euskaldunako bidegurutzea, Altxateko plaza, Malet Ostatua, Aranzuri, Maritxera doan erreka jarraituz Maritxenea,

Ontzarri, Oiarnu eta Kondendiaga. Hegoaldetik Sara eta Etxalarren mugetaraino hedatzen da debekua. Abenduaren 23tik urtarrilaren 31ra bitartean inguru ho-

rretan zakurrekin ibil daiten baina eskopetarik gabe. Gainerako ehizabarrutian aurreko urtean bezala ehizatu ahal izanen da.

Eguberrietako parkea

Berako Udaleko Merkataritza Batzordearen laguntzarekin, Berako Larun-Haitzpe dendarien elkarteak Eguberrietako parkea antolatu du. Hilaren 26tik 30era, 11:30etik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara zabalik izanen da eta haurrentzako puzgariak, tailerrak, eta abar izanen dira. Egun bakarreko sarrera hiru eurokoa da eta borts eguneko bonoa 10 eurokoa.

2007ko kontribuzio eta tasak

Abenduaren 21ean bukatuko da 2007ko kontribuzio eta tasen agiriak ordaintzeko epea. Azkeneko bi urteetan bi zatitan kobratu dira, baina aurten dena ordain-agiri bakar batean egingen da. Bertzalde, 2007ko bigarren lauhileko uraren ordain-agiriak ordaintzeko epea 2008ko urtarrilaren 9an bukatuko da.

Abesbatzaren kontzertua

Berako abesbatzak abenduaren 2an Donostiako Queimadako Kofradiak egindako 14. kapituluan parte hartu zuen. Abesbatza kofradia honetako Ohorezko Kofrade izendatu zuten 2005ean eta aurten, Donostiako Udaletxean kide berriak izendatzeko egindako ekitaldian parte hartu zuten. Maria Barredoren zuzendaritzapean, euskara, galego eta gazteleraz hiru kantu eskaini zituzten. Horrez gain, larunbatean, hilak 22, kontzertua eskainiko du San Jose Zahar Etxean 17:00etan.

Piano eta teklatu entzunaldia

Isidoro Fagoaga Musika Eskolak abendurako hainbat entzunaldi antolatu ditu. Abenduren 26an izanen da azkena eta kasu honetan piano eta teklatu ikasleek urtean ikasitakoa erakusteko aukera izanen dute. Musika Eskolan izanen da 17:30ean.

Joseba Irazokiren lan berria

Hirusta Recordsek argitaratuta, Belardian taldearekin batera, Joseba Irazokik *Pobre gara* diskoa aurkeztu du. Talde honekin grabatzen duen lehen aldia da eta bere azken diskotik ezberdina. Doinu elektriko berreskuratu du eta Iparramerikako sus-traiak eta euskal tradizioa uztartu ditu. Joseba Sarrionandiaren *Izki-riaturik* liburuko testuak musikatu dituzte.

ZJ
Zalain
 jatetxea - hostala

14 logela bainu eta TBrekin
 Zalain auzoa z/g
 Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

carohe
 gastrologia okidologia

Dr. de Estigarribia 25 baxo
 30700 Berriz (Navarra) | 948 63 08 99
 www.carohe.net

JAKINE-GOZTEGIA

Alzate 12 - BERA - 948630748

LESAKA

Cornelia Lekuona Fundazioko lurren afera moldatu da azkenean

Konstruktoreak kontratuen baliogabetasuna onartu du

Aitor AROTZENA

Azkeneko hilabeteetan Lesakan hainbortez hauts harrotu duen Cornelia Lekuona Fundazioko lurren salerosketa kontratuen afera moldatu da. Duela hilabete inguru, Juan Fermin Mitxelena alkate ohiaren eskariz, kontratuak sinatu zituen konstruktoreak hauek ez zutela balorik onartu zuen, zuzenbidean erabat deusez baitziren, nuloak alegia: Juan Fermin Mitxelenak ez zuen Fundazioko Patronatuaren boteretik sinatu zituen eta gainera, salerosketa kontratuko lurrak, berez, ezin ziren saldu. Honela, kontratua kitatua gelditu zen eta sinatzaileek ondotik edozein erreklamazio aurkezteari uko egin zioten.

Juan Fermin Mitxelena alkate ohiak kontent agertu da afera moldatu delako azkenean. Berak aipatutakoaren arabera, bere hanka sartzea izan zenez, berak hartu zuen udal batzarraren arazoa moldatzeko konpromisoa, «eta horrelaxe egin dut, inolako ondorio ekonomikorik gabe, ez Udalarrentzat ezta Fundazioa-



ARGAZKIA: LEGARRA

«Bortzirietako Gorriak» Osasunako peña lanean Feria bezperan egin zuen aurkezpen ofiziala Lesakako Osasunaren peña. «Bortzirietako Gorriak» izena hartu du eta aurkezpenera Osasunako hiru jokalarik agertu ziren: Carlos Alberto Vela mexikarra, Igotz Garde baztandarra eta aita lesakarra duen Oier Sanjurjo. Peñak 2 eta 80 urte arteko laurogei bazkide ditu eta Egoitz Telletxea da presidentea. Egoitza, berriz, Koxkilla ostatuaren lehenbiziko solairuan dute.

rentzat ere». Soluzio honekin, gainera, bide juridiala saihestea lortu da, horrek ondorio ekonomikoak izanen baitzituen Cornelia Lekuona Fundazioarentzat eta Tantirumairu ikastolarrentzat.

Merkatari Elkartearen sariak

Lesakako Zerbitzuen Elkarteak antolatutako Astean, eskaparate lehiaketa egin zen. Boz-

ketetan parte hartu zuten pertsonen artean, udaligerilekuearako urte baterako bono bana zozketatu zen eta Pili Retegi Larretxea eta Ebarista Telletxea Tapia izan ziren saridunak.

Aipatzekoa da Eskaparateen lehiaketan Txirula loredendak lortu zituela botu gehien, 233. Ondotik, Telletxea argazki dendak 142 botu eskuratu zituen eta Kuttuna dendak 117 botu.

Aste horretan ere bertez promozioa egin zen. Elkarteko dendetan erosketak egin zituztenek, ehuna euroko hiru erosketa bala-zen zozketan sartzen ziren. Honela, Antxordoki ileapaindegian gastatu beharreko 100 euroko balea Maite Gaztelumendiri egokitu zaio, Ordoki altzari dendarako Karmentxu Inziarteri eta Iñaki janaridendan gastatu beharreko Ane Gurrutxagari.


FLASH

Olentzero eta jaiotza lehiaketetan aldaketak

Aurtengoan zenbait aldaketekin datoz abenduaren 24ko Olentzero eta jaiotza lehiaketak. Beti bezala, eguerdian egingen dira lehiaketak, baina sari banaketa arratsaldean egingen da, 17:00etan eta plazan egon beharko dute parte hartu duten Olentzero nahiz jaiotzek. Honekin, arratsaldean ere Olentzeroak karrizak karrizka ikustea da Udalaren helburua, Koldo Erkizia alkateak aipatu digunez. Jaiotza lehiaketan, lehen aldiz, bi kategoriatan banatuko dira: 10 urte artekoak eta 11 urtetik goitikoak. Sariak ere handiagoak izanen dira aurtur. Erraterako, 16 urtetik goitiko Olentzero irabazleak, arratsaldean musika bandarekin desfilatze-ko eskubideaz gain, 300 euro irabaziko ditu.

Eguberrietako kontzertuak

Abenduaren 19an, asteazkenean, musika eskolak eskainiko du batzar aretoan, 18:00etan. Trikitilari, txistulari eta akordeolari taldeek leku berean egingen dute abenduaren 22an, larunbatean, 20:00etan. Abesbatzak eta Musika Bandak elizan eskainiko dute emanaldia abenduaren 23an, 11:30ean. 28an Andra Mari Zahar Etxean kantatuko du Abesbatzak 17:00etan; 29an kantu zahar poteo herrikoia eta 31n Dios-tesalve kalejira.



ETXALAR



ARGAZKIA: LEIRE ETXEBERRIA

Oiarburun, etxe eta lanbiderik gabe gelditu dira.

Oiarburu erre zen tximista sartuta

Familia laguntzeko ekiminak abiatu dira berehala

Joseba eta Nerea

Familia bati gertatzen ahal zaion gauzarik txarrenetakoa sufritu behar izan zuen Oiarburuko familiak joan den abenduaren 10ean. Tximista baten eraginez, goizeko 2:37an, ganbarako koadro elektrikoa erre eta sua baserri osora hedatu zen. Segidan eman zuten abisua SOS Nafarroako 112 zenbakian eta Oronoz-Mugairi eta Iruñeko suhiltzaileak berehala joan ziren baserrira. Goizeko 5ak alderako sutea kontrolpean zuten, baina suaren ondorioz teilatua erori egin zen eta lehen

solairuan kalte aunitz sortu zituen. Landetxe gisara ere erabiltzen zuten baserria eta beraz, etxebizitzaz aparte, lanbiderik gabe gelditu dira. Joxe Ramon eta Agustina senar-emazteak, Pepita amatxi, eta Sonia alaba onik atera ziren, nahiz eta gertatutakoa ez zaien sekula atzenduko.

DIRU BILKETAK

FAMILIARI LAGUNTZEKO

Udalak Nafarroako Kutxan eta Rural Kutxan kontuak ireki ditu laguntzak biltzeko: 20540021379150566562 (Nafarroako Kutxan) eta



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

Etxalartarak hirugarren Usazaleen bestan

Jana, edana, kantua, euria, sareak, sariak, euskara, frantsesa, eta nola ez, usoak. Ez zen deus faltatu joan den abenduaren 1ean uso-denboraldiaren akabildan ospatzeko. 120 usazaletik goiti elkartu ziren bazkari ederraren bueltan herriko plazan paratutako karpa handi batean. Urteroko ohitura da bazkari hori, baina lekua aldatu egiten da. Urtero herri batean biltzen dira. Aurtengo Etxalari tokatu zitzaion, eta besta handi bat antolatuta hartu zituen Iparraldetik etorritako usazale guztiak. Batzuk autobusez, bertzeak autotan. Goizean goizetik Iharmendiko gainera hurbiltzen joan ziren dozenaka usazale, bisita gidatu batean parajeak ikusteko. Eguraldi txarra zela eta, txabola barrenean pasatu behar izan zuten goiza. Jan, edan eta kantari joan zitzaizkien orduak. Eguerdi partean, herriko plazan elkartu ziren bazkaltzera. Elutsako ilar gorriak, Anttoniok prestatutako usoak eta panaderian erretako bildotsa izan zituzten menuan. Bazkalondotik, Iruñe eta Itxaso trikitilariekin batera, sari-banaketa izan zen. Uso kopuru handiena harpatu zuen Usategia Xiberuko Lanne herrikoa izan zen eta, horrela, lehenbiziko saria irabazi zuen: zapel handi bat. Bigarren Napalekoak izan ziren eta hirugarren gureak, Etxalarkoak. Kontent agertu ziren postu horrekin, aspaldiko urteetako posturik onena izan baitzen, aspaldiko denboraldirik onenari esker. Hurrengo urterako animorik ez zaie falta.

30080086281736722727 (Ruralen).

Toki Ona Institutuko Guraso Elkarteak ere laguntzeko kanpaina abiatu du. Zare bat zozketatuko dute ortziral honetan, hilak 21, institutuko familien artean.

80 urtekoei omenaldia

Urtero bezala, Larraurua elkarteak 80 urte bete dituztenak omendu zituen Xabierko Frantzisko egunean, abenduaren 3an. Elkartean bertan bazkari ede-

rra egin zuten eta, ondorengotik, plakak, lore-sortak eta bertze oroigarriak eman zizkieten aurtengo omenduei: Mari-txu Zubieta, Matias Teletxea, Perpetua Arburua eta Teresa Goieneri.

ABONA ZAITEZ LESAKAKO UDAL KIRODEGIRA
 "ZURE SASOIAN JARTZEA INAUGURATU" *Urde Lesaka*

LESAKAKO LEIAL KIRODEGIA

ABONATU BILKETA KANPAINA BERRIA MARTXAN!

INSTALAZIOAREN IREKIERA: 2008ko martxoan

INFORMAZIOA
 Informazioa: 012
 www.lesaka.net
 www.urdist.net

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
 Tel. Fax: 948 63 10 27

ARANTZA

Astelehenean betiko legez Olentzeroekin kalejira egingen da bazkalondoan

Eguberri Egunean haurrentzako jokoak egingen dira plazan

Nerea ALTZURI

Urte honen azken txapan gaude eta Eguberri garaia gainean dugu. Arrazoi batengatik edo berteengatik gure artean ez dauden lagunak eta familiakoak go-goan izanen ditugu.

Ohiturari jarraituz, Eguberri bezperan egingen den kantu-kalejirarako gaztetxoak eta helduak prestatzen ari dira. Iaz bezala eskolako ikasle eta irakasleek Olentzero bat aterako dute. Halere, seguraski herriko kuadrilek ere bertze pare bat aterako dituzte.

Bazkalondoan Olentzeroak bizkarrean eta baserriarrez jauntzita herriko hainbat lagun herrian barna kantuan ariko dira eskusoinuaren laguntzaz. Gero, merezitako merienda egingen dute. Biharamunean, Eguberri Eguna, eguerdian plazan elkartuko dira berriz. Jo-

koak egingen dira eta Eguberrietako abestiak kantatu Olentzeroak aldamenean dituztela. Ondotik, ohitura hala baita, Olentzeroak erre egingen dira. Nolanahi ere, eguraldiaren araberako egingen da hori.

Turkiara bidaia

Lehenago ere aipatu moduan, hurrengo urteko bidaia gidatua Turkiara egingen da, ekainaren 9tik 19ra. Hala, bidaia horretara joateko asmorik duenak urte berria hasi aurretik izena emateko deia egin da. Bidaiaren nondik norakoak ere emateko moduan gaude.

Ekainaren 9an, Donostiatik Madrilera eta Madriletik Istanbulera, bi hegalditan oporlekurara iritsiko dira bidaiariak. Arantzatik Donostiara autobusez joanen dira.

Ekainaren 10ean, bertzeak bertze, Izmir badia ferriarekin guru-



ARTXIBOA

Ludoteka urtariletik aitzinera berriz martxan

Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Euskara Mankomunitateen ekimenez, ludoteka proiektua abiatu zen irailean haurrei heziketa erdugarri bat eskaintzeko asmoz. Bortz herrietan eskaini zen zerbitzua, 3 eta 8 urte bitarteko haur guztiei. Hasiera batean abendura bitarteko egitasmoa zen, baina Eguberriak bukatutakoan, urtarilaren 8tik aitzinera, ludotekak martxan izanen dira berriz ere. Arantzán, zerbitzu hori astearte eta ortziraletan eskainiko da, 16:00etatik 17:30era. Izen emateko epea joan den astean akautu zen. Argazkia 3 urte baino guttiagokoentzako ludoteka zerbitzuko da, aitzineko ikasturtean ateratakoa.

tzatuko dute. Ondoren, Bursa aldean, Mezquita eta Mauseo Verde delakoak, hiriko monumenturik ikusgarrienak bisitatu dituzte. Area de Esmirna hirian pasatuko dute gaua.

Ekainaren 11n Efeso hirirantz abiatu eta Templo de Artemisa bisitatu dute, munduko zazpi leku ikusgarrien artean dagoen eraikina. Gran Anfiteatro, Celsio Liburutegia eta Adriano Iturria ere ezagutuko dituzte. Efeso museoa egondakoan Denizli hirira aldera joanen dira.

Ekainaren 12an, Pammukale, Konya, Meylana Mauseloa eta Capadocia ikustera joanen dira. **Ekainaren 13an** Lapadocia hirira joan eta bertako eraikina ikusteko aukera izanen dute.

Hilaren 17a bitarte Istanbulen egonen dira. San Salvador de Chorako eliza, Edirnekapi auzoa, Pier Loti mendia, Süleyman el Magnifico Mezquita eta Gran Bazar xokoa ikusiko dituzte. **18an** turkiar bainu batera joanen dira eta **19an** berriro etxera.

Aipatu bezala, izen ematea lehenbailehen egitea komeni da. Hartuemanetarako telefonoa 948 634030 da (Martin Legarra).

Asier Apezteak bigarren postua

Aitzineko alean aurreratu bezala, abenduaren 9an bukatu zuen Asierrek Lizarrako Txirrindulari Elkartearen Opena. Lan txukuna egin du txirrindulari arantzarrak eta bigarren bukatu du sailkapen nagusian. Zorionak!

bortzirUDI
bortzirudi@telefonica.net

KARTELAK · KAMUSETAK · BISERRAK · TIKETARIOAK (Nahi duzun neurri - diruarekin)
FOTOKOPIA DIGITALAK · KOLORIBESAK · TITULU BISTETAN · PLANOAK
ENKADERNAZIOAK · PLASTIFIKAZIOAK · PEPEPETA · BULIGO MATERIALA
DISEÑO GRAFICO · LOGOTIPOAK · FOTOTULIOAK · IMPRENTA

Estrezoa, 26 Eskaineko Behea D - BERA - Tel-Fax: 948 631 521

Tel: 948 634 179

ARANTZA

ATERPE
ALBERGIA

ALBERGIA · JATETXEA

PIKABEA

harategia • urdaitegia

janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

Pitti

estabazteak

Tel: 616 513 491

Mendaketa aldea, 34 ZUBIETA

IGANTZI

Giro ederrean joan dira aurtengoan ere Kultur Egunak

Bota patsa! antzerki emanaldiak jendez bete zuen Zaharren Etxea

ttipi-ttapa

Abenduaren 6tik 8ra Kultur Egunak egin ziren Igantzin. Haur zein heldu, denen izan zuten parte hartzeko aukera. Abenduaren 6an, ortziralarekin haurrak izan ziren protagonistak, eta herri kiroletan ari eta filmak ikusteko aukera izan zuten, baita merienda goxoa dastatzeko aukera ere. Biharamunean, hilak 7, Euskal Herrian hain ezagun egin diren *Bota patsa!* antzerkia ikusteko aukera egon zen. Ongi pasatzeko komedia arin bat eskaini zuten eta Zaharren Etxea jendez bete zen emanaldia ikusteko. Larunbatean, tradizio bihurtu den erakusketa eguna izan zen. Biltokiren eskutik, *Igantziazarrak eta kirola* gaiarekin erakusketa izan zen Baratzondon. Azken urteotan mendian, bizikletan edo pilotan herritarrek jokatu eta irabazitako txapelketak bildu zituzten Baratzon-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Arrakasta haundikoa izan zen *Igantziazarrak eta kirola* izeneko erakusketa.

doko mahaietan argazki eta trofeo bidez.

Erakusketarekin batera patata-tortilla lehiaketa abiatu zen. Guztira, bederatzitortilla aurkeztu ziren eta guztien artean, Julen Taberna gaztearena aukeratu zuen epaimahaiak. Bigarren saria, Julenen amarentzat, Gurutze Iribarrentzat izan zen. Semeak amaren irakaspenak ikasteaz gain, hobetu ere egin duela erran liteke, beraz. Hirugarren saria ere gaz-

tetxo koadrila batentzat izan zen, Janire, Maite, Unai eta konpainiarentzat. Epaimahaiak Maria Jesus Telletxea, Jose-txo Arburua, Jose Luis Sein eta Joseba Urbistondok osatu zuten.

Arrasaldean, lehiaketan parte hartu zuten tortillak dastatzeko aukera izan zen Biltokian eta kultur egunei akabera emateko, 64 P *Errepide* taldearen jazz emanaldia izan zen, Udazkeneko Bira zikloaren barrenean.

Udal ordezkariak 120 euro pleno bakoitzeko

Udal ordezkariak, alkateak zein zinegotziek, 120 euro jasoko dituzte joaten diren pleno bakoitzeko. Akordioa duela gutti hitzartu bazuten ere, 2007ko ekainaren 16etik, hau da, kargua hartu zuten egunetik aitzinera izanen du eragina. Horrez gain, karguaren ondorioz sortu daitezkeen gastuak ere ordainduko dira.

BORTZIRIAK

Bertso eskolaren taldekako txapelketa ortziral eta larunbatean

ttipi-ttapa

Ortziral eta larunbat honetan egingen da Bortziritako bertso eskolaren bederatzigarren aldiz antolatutako Bortziritako taldekako lehiaketa. Aurtengoan ere bertso maratonia formatuan etorriko da eta zortzi hirukote osatu dira, guztira 24 bertsolari. Ortziral honetan, hilak 21, 20:30ean Espidobaitan egingen da afori berenduren ondotik hasiko dira kanporaketak. Lau hirukote ariko dira bertsoetan, eta larunbatean, Xarutan 13:30ean egingen den bazkariaren ondotik bertze lau hirukoteak lehiatuko dira. 18:30ean Saskin lehen finalerdia jokatu da, eta 20:30ean Atxaspin bigarrena. 22:00etan barrikotea egingen da Kattun eta ondotik, finala. Otorduetara joateko 618963011 telefonon eman behar da izena.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☛ Langile autonomoak ☛ Nekazariak eta mendi langileak ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak ☛ Lan-Kontratutarako laguntzak ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☛ Diru-laguntza ezberdinak ☛ Kontabilitateak ☛ IVA eta IRPF ☛ Errenta aitortpenak ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak ☛ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
--	---

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: Lo Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

arkitektoak

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
 URBANIZAZIO PROIEKTOAK
 ETXE BERRITZEAK
 NABEAK
 KONSULTAK
 INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO - Santiago, 54 behea · 948 581 931
BERA - Eztegarra, 8 behea · 948 625 232

MALERREKA

Zubietarrek herria gobernatzea nahi duten herritarrek aukeratu dituzte

Hilaren 9an 268 lagunetik 124k eman zuten botoa

ttipi-ttapa

Zubietako bizilagunek herria zeinek gobernatzea nahiko luke ten herritarrek aukeratu zituzten abenduaren 9an egindako hauteskunde berezian. Guzira, 268 lagunek zuten bozkatzeko eskubidea eta erdiak baino guttiagok, 124k bete zuten eskubide hori. Zazpi herritarren izenak jarri behar zituzten papertxo batean eta guzira 18 lagun zerrrenda ateraz. 18 horiek abenduaren 15ean biltzekoak ziren, Udala osatu duten zazpi hauteskiak erabakitzeko.

Abenduaren 9an, Fermin Etxekoloneak eskuratu zituen boto gehien, 62; Patxiku Mitxelena 50; Lino Elizalde 46; Mikel Telletxea Beltzak 42; Ines Gerekak 34; Gorka Fuentesek 30; Jose Luis Mendiburuk 29; Jose Mari Juanikorenak 28; Periko Santestebanek 27; Pio Elizalde 25; az-

ken legealdiko lehenbiziko bi urtetan alkate izan zen Jon Mikel Aragonek 23 boto; Iñaki Etxeberriak 22; Tomas Otxandorenak 20; Benantzio Baleztenak, 1999tik 2003rako legealdian alkate izan zenak, 20 boto; Isabel Elizalde 18; Txelo Urzainen 17; Battiitta Santes-

tebanek 16 boto eta Mikel Loiartek bertze 16. Orain Gobernuari dagoen herria gobernatuko duen batzordea izendatzea. Zubietarrek Iruñetik erabakia itsuan hartu ez dezaten, hauteskunde bereziok egitea erabaki zuten, hautagaiak aukeratu eta Gobernuari proposatzeko.



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

Santa Luzia Eguna Donezteben Ohiturari eutsiz, abenduaren 13an Santa Luzia eguna egin zen Donezteben. Goizean Malerreka-ko artisauen lanen erakusketa eta salmenta izan zen, eta meza ondotik, Udalak M^a Teresa Mingedia Muñoz jostuna omendu zuen. Aurtengo Urrezko Titarea jaso zuen M^a Teresak.

ESKUALDEA

Hainbat zenbait zerri hazle sarituak estatu mailako Porc D'Or lehiaketan

Zerriak hazten dituzten Nafarroako zortzi zerri hazle lortu dute aurtun Lleidan egiten den Porc D'Or lehiaketako saria. Katalunako Generalitatearen menpe dagoen Institut de Recerca I Tecnologia Agroalimentaries erakundeak ematen ditu dominak, produkzio datuen arabera estatu osoko zerri-esplotazio onenak sarituz. Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, zerri-esplotazioa BDporc izeneko datu-basean sartua egon behar du.

Hamalagarren edizioa zen aurtengoa, eta guztira 450.000 zerrama dituzten espainiar estatu osoko 900 zerri-haztegik hartu dute parte. Hauetatik 77 esplotazio izendatuak zeuden 48 saritarako. Deialdian hiru produktibitate arlo ezberdin saritzen dira, bizirik jaiotako zerrikumeak, produktibitate kopurua eta umatze-tasa, urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominarekin.

Gure eskualdera sari ugari etorri dira, hiru sailetan. Lehen kategorian, produktibitate kopurua sarituz (125 zerri baino guttiago), Etxalarko **Francisco Jabier Irisarrik** urrezko domina eskuratu du, eta Urrozko **Jose Mari Iribarren Etxegiak** zilarrezkoa. Kategoria berean, bizirik jaiotakoen sailan, Iturengo **Isidro Bazterrika Mutuberrriak** urrezko saria lortu du, eta **Francisco Jabier Irisarri Telletxea** etxalartarrak brontzezkoa. Umatzetan atalean, **Begoña Sanzberro Iturria** baztandarrak, Nafarroako Gobernu Landa Garapen eta Ingarumen kontseilaria den lehenbiziko saria lortu du. Almandozko abeltzaina hirugarren aldiz saritu dute Porc D'Or lehiaketa honetan. Zilarrezkoa Donamariako **Leon Lasaga Irazoki** rentzatu izan da, eta Berroetako **Juana Etxenike Bikondo** arentzatu brontzezkoa.

APARAN, S.A.

BROKOLALIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



Energia Berriztagarrien Instalazioa eta Ingeniaritza

Eguzki-energia termikoa
(Kontsumoko ura berotzeko
Berogailuak / Igerilekuekako ura berotzeko)

Eguzki-energia fotovoltaikoa eta haize-energia
(Etxe bakartuak elektrifikatzeko
(Sare nagusiarri elektrizitate saltzeko)

Biomasa (Pellets galdarak
Estatu ezazu errekonputu inolatako konpromisoerik gabe



ALTSASU - Isasia industrialdea, 4 pabiloia
www.esipsolar.com info@esipsolar.com
T eta F: 948.564.024 Mug: 609.74.52.25

ITUREN

Maika Ariztegik koxkor biltzen Euskadiko seigarren txapela lortu du emakumezkoetan

7 minutu eta 23 segundoko denboran akitu zituen lanak

Ainara MINDEGIA

Azaroaren 3an jokatu ziren emakumezkoen eta gizonezkoen Euskadiko koxkor biltze Txapelketak, Bilboko Casilla kiroldegian. Lehenik emakumezkoen lehia jokatu zen. Hiru koxkor biltzailek parte hartu zuten emakumezkoen txapelketan; Maika Ariztegi iturendarrak, Nahia Ferranera eta Itsaso Hernandezek.

Saioa hagitz ongi hasi zuen Maikak, baina lau saskiratzetan huts egin ondotik ezin izan zuen aitzineko marka hobetu. Lehengo marka hagitz ona zuen (7:28), baina oraingoan ezin izan du hobetu (7:23). Hala ere Emakumezkoetan seigarren

txapela jantzi zuen Maika Ariztegik. Zorionak!

Ikasleen irteera

Astearte honetan, eskolako ikasleak Irungo Ficoban Eguberrietako parkean izan ziren. Egun guztian, puzgarri, bideojokoak eta hainbat jokorekin gozatu zuten.

Eguberrietako ekitaldiak

Ortziralean, hilak 21, Eguberrietako ekitaldi berezia prestatu dute eskolako irakasle nahiz ikasleek, 9:30etan hasi eta 12:00ak arte. Azken hilabete honetan irakasleak eta ikasleak gogor aritu dira lanean egun polit honetarako prestatzen, eta hala, txikienetik hasita gela ba-



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

Ohiturari segituz, Aurtitzen aurten ere mutil ttikiena aukeratuko dute Olenzterorena egiteko; bertze batek Jesus Haurtxoaren irudia eramanen du eta bertze bi etxeetan jasotako puskak biltzeaz arduratuko dira. Bildutakoarekin Eguberrien ondotik berendua egingen dute.

koitzak bere saioa eskainiko du. Kantuak, dantza, musika tresna ezberdinak, antzerkia... Ez da ezer faltako. 11:00ak inguruan saio horiek amaituko dira eta oporrak hartzeko 11:00etatik 12:00etara Gabonetako gosari be-

rezia izanen dute. Ekitaldi hauek gurasoei ere irekiak daude, eta animatu zuten seme-alaben ikuskizunak ikustera.

GABON KANTAK

Hau eta gazteak dagoeneko hasiak dira Olentzero egunerako

kantak prestatzen. Eskolatik atera eta arratsaldetan Gabonetako kantak eta trikitixa hartu eta abenduaren 24ko saioa dotore antolatzen ari dira.

Bide batez, Eguberri on eta Urteberri on opa dizuegu herritar guztiei.

Etxeko Ardi Gazta

LIZUN
GAZTANDEGIA

Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

Belarra
jaketxea

948 450 306

Ameztiak karrika
DONEZTEBE

ttipi
ttapa

☎ (0034) 948 635458

Herritarren

012
telefonoa

Udala, zure zerbitzura

- Informazioa jasotzeko
- Bostakortuen iruzkin emateko
- Partehartzeak jaratzeko
- Zifuraketa eta kintaketa egiteko
- Sarrirenak emateko
- Bostakortuen iruzkinak

INEOS/OCAL

EUROPEAN UNION

EUROPEAN COMMISSION

EUROPEAN PARLIAMENT

Brenda naiz, ~~Perukoa~~

ETA EZ BALU INPORTA
NONDIK ZATOZEN, BAIZIK
ETA NORA ZOAZEN?
A ZER GOZAMENA!



BERDINAK GARA. DESBERDINAK GARA.
PERTSONAK GARA.

 Nafarroako
Gobernua



BERTIZARANA

Bortz zentzumenekin gozatzeko ibilbideak Bertizko Natur Parkean

Ezintasuna duten bisitariei gozatzeko aukera eman nahi diete

ttipi-ttapa

Ezintasuna duten pertsonak ere Bertizko Natur Parkeaz gozatzeko aukera izan dezaten, ibilbide moldatua prestatu dute. Nafarroako Gobernuaren eta La Caixaren ekimena izan da, eta inaugurazio ekitaldia azaroaren 28an egin zuten. La Caixa guztira 1,2 milioi euroko inbertsioa egin du. Ekitaldian Begoña Sanzberro Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen kontseilaria, Fermin Olabe parkeko zuzendaria, Pedro Castillejos eta Hernan Crespo La Caixako Negozio Ataleko zuzendaria Nafarroan eta Gizarte saileko arduraduna, hurrenez hurren, eta Matilde Gomez Casas Nafarroan ONCEk duen ordezkaria izan ziren. Ekimen honen bidez zentzumen ezberdinak esperimintatzeko aukera ematea da helburua, ezintasunak dituzten bisitariek ere gozatu dezaten.

Bidexka berriak 450 metro ditu eta ibilbidearen alde batean soka bat jarri dute, baita zurezko makilak ere sokari eusteko. Ibilbidearen hasieran panel informatiboa dago. Ukimen eta ikus-



menezko elementu lagungarriak datoz ondotik: belarrientzako entzumen-tronpak paratu dira, eta naturak eskaintzen dituen soinuk anplifikatzen ditu; ukimena eta usaimena lantzeko lantzagailuak jarri dira naturaren elementuak ukitzeko; ukimen-ikusmena uztartzen dituzten plakak ere badaude. Enbor hil bat ere badago, ukimena eta usaimena lantzeko.

Ibilbideaz gain, Natur Parkera sartzeko zubia ere birmoldatu dute. Konponketa hauek 123.000 euroko gastua izan dute, eta La Caixak osotasunean ordaindu ditu. Interpretazio zentroa ere berritzea aurreikusitua dute.



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Sekuoia enborrari besarkada bat emateko aukera ematen —goian—. Beheko argazkian entzumen tronpak ageri dira.

FLASH

Oieregiko Kontzejuak Natur Parkea bere herrian dagoela aldarrikatu eta dago-kiona eskatu du

Oieregiko Kontzejuak ez daude batere ados Bertizko Natur Parkearen funtzionamenduari. Natur Parkea Oieregin dagoen arren, administrazioak Oieregiko inongo begirunerik ez duela salatu du Jose Mari Galarregi Kontzejuko lehendakariak. Hala, hainbat eskaera luzatu ditu Kontzejuaren izenean: Parkeak bisitekin jasotzen denaren %50a ematea. «1984an Parke Naturala izendatu zenetik, gastuak bertzerik ez ditugu izan». Horrez gain, turismo bulegoan banatzen diren Baztango tripitikoaren inguruan ere kritika egin du, Bertiz Oronoz-Mugairin dagoela islatzen dutelako, eta ez Oieregin. Erreparazetik Balangondorako bidetara Kontzejuarena delako ere aldarrikatu du, eta bidetara bilakatzearen kontra daudela. Gida Batzordean, «boto exekutiboa eskatzen dugu, eta ez kontsultarako botoa». Alde horretatik, Gida Batzordearen azken bilera duela sei urte egin zela ere salatu du Galarregik, eta berriro beharko litzatekeela. Parkean lanpostu gehiago zabaltzeko eskaera ere luzatu du, eta lanpostu hauek lehia-kerara aterata beharko liratekeela uste dute Oieregiko Kontzejuak.

www.ttipi.net

ERREZETA BILDUMA
tradiziozko errezeta
gozagarriak



Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tínoa: 948 630 735 - 607 406 781

URA

Bidasoa errekarri buruzko ondorioak ezagutzera eman ditu Uraren Foroak

2015. urtean arro osoan uraren egoera ona izatea da helburua

ttipi-ttapa

Nafarroa osoko erreka arro ezberdinei buruzko Uraren Foroa egiten ari da hilabete hauetan. Bidasoa arroari dagokionez, hainbat bilera egin dira Bertizen eta hauei buruzko ondorioak eta etorkizunean segitu beharreko lan ildoak buruzko azalpenak eman zituzten azaroaren 28an.

Foro hau uraren inguruan interesa duen edozeini irekia egon zen: udal erakundeak, erabiltzaileak, enpresak, elkarte edo pertsonak indibidualak... Bidasoa ibaiaren arroaren egoerari buruz hausnartzeko zuzeneko gonbidapenak egin zitzaizkien 280 pertsoneri eta pro-

zesuan Baztan, Bortziriak eta Malerrekako 60 bat lagunek hartu zuten parte. Bederatzi hilabetez zortzi bilera egin ziren: hasierako bileren ondotik, aurkezpena egin zen martxoan; maiatza eta ekaineko bileretan egungo egoera eta helburuei buruzko diagnostia egin zen; ekainean, irailean eta urrian, uraren kalitatea hobetzeko neurriei buruzko sesioak egin ziren eta azaroko saioan emaitzen aurkezpenaren ondotik, erakunde ezberdinekin bilerak egiten zituzten. Foro honen azken helburua, 2015. urtean Bidasoako uraren egoera ona izatea da, horretarako behar diren neurriak proposatuz.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Monika Migeltorena, Concha Fernandez de Pinedo, Alberto Jimenez eta Cristina Alonso, prozesuaren dinamizatzaileak.

Foroan parte hartu zutenen ustez, ur-hornidura leku guzietan ez dago segurtatua, erreka bazterren eta ekosistemaren egoera txarra eta uraren kontaminazioa dira arazo nagusiak. Industria eta herrietako isurketak ere aipatu zituzten, bertze zenbait gairekin batera. Arazo nagusiak ezagutu ondotik, helburu nagusiak ezarri zituen foroak. Batetik, erreka eta ekosistema mantentzeko ur-emari nahikoa segurtatu nahi da; uraren kalitatea eta erreka

ekosistemaren kalitate hidromorfologikoa ere hobetu behar dira; uraren erabilpen jasangarria sustatu nahi da, kudeaketa eta kontrola hobetu eta sentsibilizazioa landu. Helburu hauek kontuan hartuta, zenbait neurri ere proposatu zituen Uraren Foroak eta hemendik aitzinera, udalei, mankomunitatei, Nafarroako Gobernuari eta Uren Konfederazioari hartu beharoko liratekeen neurrien berri emanen zaie.

Uraren Foroaren hiru bozeramale ere izen-

datu ziren: sektore publikoaren bozeramailea Vicente Arotzena Arantzako zinegotzia izananda eta ordezkoa, Deñe Abuin, Lesakako zinegotzia. Sektore produktiboaren bozeramailea, Jose Javier Arraztoa, energia hidroelektrikoaren produktorea eta ordezkoa, Cederna-Garalur erakundeko Arantxa Arregi; gizarte sektorearen ordezkaria, Jorge Teniente, ANMS *Ríos con vida* elkarteko presidentea izananda eta ordezkoa, Jose Ignacio Irusta erabiltzailea.

Grupa T n t r T l
I C H E
 M i r r k S. L.

2 UK ZE ITZU
 EIL T KI N ET ETXE N

T SL KI U E, N STI ET
 I U N G S IT LET TI KE ZEIN HE IET

L E K, HIL T K, ESKEL K,
 E USKET K ET ZE ITZU S G I K

T S N J SE EIL T KI	3 7
n zt S N E EIL T KI	3 7
E l z n P U N E I ZI N T N T I ZI N	5 1 5
L tz L I T Z K EIL T KI	3 7
L s k L I S K K T N T I	3 7

ARKUPEAK

700 bazkide inguru elkartu ziren Arkupeak-en urteko azken bestan

Urtarrilaren 20an Eusebio Irazoki omenduko dute Sunbillan

ttipi-ttapa

Arkupeak Erretiratuen Elkarteak bere urte amaierako besta egin zuen joan den azaroaren 24an Donezteben. Baztan-Bidasoa eskualdeko 3.600 bazkide ditu elkarteak eta horietatik 700 elkartu ziren Donezteben. Dena den, bertze urtetan baino jende guttiago hurbildu zen. Aitzineko urtearekin konparatuz, 300 lagun guttiago.

Omenaldi besta izan zen eta Felipe Ganboa lehendakariak aurten hildako 86 bazkideak gogoan izan zituen. Baina aldi berean, bazkideak elkartu eta leku berriak ezagutzeko duten gogoia ere azpimarratu zuen. Aurten banaz bertze bidai bakoitzera 380 bazkide joan dira.

Eguneko egitaraua mezarekin hasi zuten, eta meza ondotik denak kiroldegira joan ziren bazkaltzera. Hala ere, aitzinetik, eguneko momentu hunkigarrienaren



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Omenaldia jaso zuten bazkideak.

txanda izan zen: omenaldiak. Miguel San Miguel Doneztebeko alkateak eta Marta Alvarez Gizarte Gaiaren eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusia bertaratutakoei ongietorria egin eta sei omenaldi egin ziren. Honako hauek jaso zuten txapela, makila eta lore sorta: Joakin Goikoe-txea zuzendaritzako kidea (87 urte); Jose Urru-

tia Saldiasoko ordezkaria (87 urte), Anuntxi Agesta berriki arte zuzendaritzako kidea izandakoa (92 urte) eta bere senarra den Jose Paul Corrales (86 urte). Azken hau zuzendaritzako kidea izateaz gain, ordezkaria eta Arkupeak elkarteko idazkaria ere bada. Aurten hil diren bertze bi kide ere omendu nahi izan zituzten: Pantxito eta Ro-

sario Gorostiaga anai-arrebak. Biak ordezkariak izan ziren, eta Pantxito zuzendaritzako kidea ere izan zen.

Egun ederra pasatu zuten erretiratuek azaroaren 24an, eta badute bertze bestak antolatzeke asmoa ere. Hemendik guttira izanen dena urtarrilaren 20an egingen dute. Eusebio Irazoki omenduko dute Sunbillan.

LITERATURA

Literaturzale bila dabil 111 Akademia

ttipi-ttapa

Irakurtzea gustuko duzula? Horixe nahikoa da 111 Akademiako kide izateko. Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren ekimenez abiatu zen 111 Akademia, euskal literaturzaleen lehenengo akademia. 111 kide izatea da helburu, eta horietatik guttienez 17 nafarrak izatea. Momentuz, 82 kide ditu, eta horietatik lau dira nafarrak (Erratzu, Etxalar eta Arantza). Oraingoz, funtsezko eginkizuna urtero Beterriko Liburua Ohorezko Literatur Aipamena hautatzea da, irakurleentzat gogokoena den liburua saritzea, alegia. Hasieran, Beterriko Liburua aldizkariko irakurleek erabakitzen zuten nori eman ohorezko aipamena. 2000. urtean irakurle horiekin Epaimahai Orokor bat osatu zen, eta orain, epaimahai hori Euskal Herri osora zabaldu nahi da. Interesatuak urtean guttienez bizpahiru liburu irakurri beharko lituzkete, urte horretan euskaraz argitaratuak; liburuak irakurri ahala, horiei buruzko iritzia bidaliko luke akademia, eta urtea amaitzean bozka bidez aukeratu irakurri dituenetik nori emanen liokeen urte horretako aipamena. Informazio gehiago: 943 696450/akademia@111akademia.com-en, edo Baztan, Bera, Doneztebe, Leitza eta Lesakako liburugietan.



MUGAIRE

iturgintza • kalefakzioa • gasa

Tfnoa: 948 59 24 14
Faxa: 948 59 24 15
Mugikorra: 629 407 895
ORONoz-MUGAIRI

ARANO

Beltzekobordako jangelak su hartu zuen abenduaren 2ko goizaldean

Keak bazter guztiak belztu zituen baina gela bakarra erre zen



Kontxi KLABER

Susto galanta hartu zuten Beltzekoborda baserrian joan den abenduaren 1etik 2rako goizaldean, bai etxekoek baita bertara inguratutako auzokideek ere. Zorionez, gela bakarra erre zen, bestelakoa badirudi ere etxearen itxura ikusita, keak bazter guztiak belztuta utzi baitzuten. Goizuetatik suhiltzaileak etorri ziren, eta ordurako sua itzalia bazen ere, eurek eman zuten azken begiratua.

Bertso afari arrakastatsua

Enaitz eta Enkarnik abenduaren 7rako antolatua zuten afaria eta ondorengo festa jendearen gustukua izan zen. 30 lagun bildu ziren afaltzera, eta ondoren Unai Agirre eta Maialen Lujanbio bertsotan aritu ziren Xabier Legarreta gai jartzaile zutela. Enaut Agirre bertso zaharren kantuan aritu zen, Imanol Kamio esku soinuarekin eta Aitor Atxega gitarrarekin lagun zituela. Jendeak kantatzeko orriak banatu zituzten, baita gustura aritu ere.

San Martinak giro ederrean

Iazko arrakasta gogoratuz, pozik hartu zuen jendeak aurten ere San Martin eguna. 1999an egindako bideo emanaldia ikusi ahal izan zen, baita Jose Mari Carrereren ipuinak entzun ere. Azkenik, norberak egindako taloak jan ziren —argazkian—.



Etorkizun ona segurtatzeko modu hoberik bada



Pentsio Planak

- RG Dinero • RG Uno Renta Fija
- RG Dos Mixto 40 • RG Tres Mixto 75
- RG Cuatro Renta Variable • RG Cinco Mixto 20
- RG Gestión Activa • Nuevo Plan Garantizado

nire aukera



> Zure etorkizuna gure Planetan dago

GOIZUETA

Erantzun ederra eman diote herritarrek aurtengo 'azaro kulturalari'

Jende andana hurbildu zen Feria Egunean

Esteban AROTZENA

Ehunka lagun igo dira Ganbarara aurtengo azaroko asteburueta bertan burututako ekitaldiak asmoz. Inoiz ez bezalako erantzuna eman diote, beraz, herritarrek Azaro Kulturalari, Kultur Taldeak eta Udalak antolakuntzan bete-betean asmatu dutenaren seinale. Eriz magoak, Jaione Olazabalek eta bertso idatzien jaialdiak bete egin zuten Ganbara, eta diapositiba emanaldia, Xalxo Sariaren kanporaketan eta zine proiektioan ere jendetza polita bildu zen aretoan. Hila-beteko ekitaldi nagusiak, feriak, alegia, jasotako

erantzuna baloratzeko hitz bat bakarra erabili liteke: ikaragarria. Mingain urdinaren ondorioz aziendak ezin kaleratu izanak kalte egin zion feriarri dudarik gabe, eguerdi artean plazak zeukan itxurari batez ere. Dena den, bazkailordutik igande goizera arte ederki ahaztu ziren mingain urdinak, paregabea izan baitzen herriko festa giroa.

Goizueta Astintzen

Goizueta Astintzen aldizkariaren hirugarren aleak ere azaroan ikusi zuen argia. Zortzi orrikoa da, mamitsua eta koloretsua, aurreko biak

bezala. Taberna eta erakunde publikoetan bakarrik banatu dira orain arteko aleak, baina jende gehiagoren eskutara zabaltzeko garaia ailegatu dela uste dute egileek. Horretarako harpidetza kanpaina abiatu dute. Harpidedun egiten denak urtean lau ale jasoko ditu etxean 12 euroren truke. Interesatuak goizuastintzen@gaztesarea.net helbidera bidali behar dute e-maila izen-abizenak emanez.

Koroaren saioa

Bere lehen emanaldiaren urtebetetzearekin kointzidituz, herriko koroaren saioa izanen da



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

2008ko Goizuetako egutegia

Herriko hainbat argazkilariren kolaborazioari eta ezker abertzaleko beste zenbait kideren lanari esker, 2008ko Goizuetako egutegi ikusgarria kaleratu zen Feria Egunean. Bera izan zen gainera, produktu izarra, ia 300 ale saldu baitziren egun horretan bakarrik. Orduan erosi ez zuenarentzat Amaiarenean eta estankotan daude salgai bost eurotan.

elizan hil honen 29an, larunbatean, ilunabarreko meza ondoren. Urte Za-

har ilunabarrean, berriz, herriko kaleetan barreina ibiliko dira kantuan.

ARESO

Urtea bukatu aurretik barandak eta rokodromoa eraikiko dira

Gobernuak lanak egiteko dirulaguntza eman du

Juana Mari SAIZAR

Rokodromoa, tirolina eta herrian barna hainbat baranda eta helduleku jarri behar dituzte urtea bukatu baino lehen. Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuak emandako laguntzarekin egingo dira. Hainbat udalek eskaera berdina egin dute, eta lan guztiak batera egin behar dituzte.

Kontribuzioak abenduan

Katastroko datuak gaurkotuak ez zeudenez, aurtengo kontribuzioa abendura pasatuko da, orain bidali ditzutelako datuak.

Susmagarriak butanoen errebisioan

Aste honetan butanoaren errebisioak egi-

teko enpresa baten ize-nean hiru mutil ibili dira herrian barna. Baina susmagarriak zirelakoan, herritar batzuek Nafarroako Gobernura deitu zuten, eta han ziurtatu zieten enpresa honek espediente bat irekia duela eta ez duela baimenik errebisio horiek egiteko. Udaletik 012ra deitu eta etxetik haren berri eman



ARGAZKIA: JUANA MARI

Guraso Elkarteak Gabonetarako ekimen berri bat jarri du martxan. Larunbatero umeak eskolan elkartzen dituzte, eta arratsaldea pasatzeko film bat emititu ondoren txokolatea eskaintzen dute.

zuten. Errebisioa legiala denean, bost egun aurretik deitzen dute etxeetara etorriko dire-

la jakinarazi eta prest egoteko. Ez da lehenengo aldia hau gertatzen dela, beraz, argi ibili.

LEITZA

Oraindik argitu gabe dago Vanpac lantegiaren afera

Enpresan hiru sute izan dira, horietatik bi Leitza

Joseba URKIOLA

Azaroaren 26ko goizaldean, Vanpac S.A. enpresak Leitza daukan egoitzak su hartu zuen. Antza, eraikuntzaren kanpoaldean zeuden paper prentsatuetan sortu zen sua eta pixkanaka zabaltzen joan zen. Segurtasun sistemak berehala aktibatu ziren eta suhiltzaileak ere segidan gerturatu ziren sua itzaltzera. Eguna argitzerako dena kontrolatua zuten.

Ez zen Vanpac S.A. enpresaren lehen ez-beharra izan, 2006ko urrian, beste sute bat gertatu baitzen. Orduan ondorioak kaltegarriagoak izan ziren. Azken sutean 100 bat tona material erre ziren eta iazkoan, materiala erreteaz gain eraikuntzak kalte handiak jasan zituen. Halere, azken gertakari honek zalantzak sortarazi ditu enpresako arduradunengan. Jokin Dorronsoro lantegiko gerentearen arabera, ez zen ezusteko baten ondorioa izan, eta nahita sortutakoa izan liteke. Azaroaren 15ean, enpresak Oiartzunen daukan egoitzan beste sute bat izan zuen eta ordukoak Leitza gertutakoaren antza han-

dia du. Orain kasua Guardia Zibila eta abokatuen esku dago.

Emakumeen aurkako indarkeriaren eguna

Leitzako Bilgune Feministak Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, ekintza ugari antolatu zituen. Azaroaren 23an, Aurrea Elkartean *En Tierra de Hombres* filma eskaini zuten. Ondotik, Miren Aranguren Euskal Herriko Bilgune Feministako dinamizatzaileak *emakumeak eta indarkeria*ri buruzko hitzaldia eskaini zuen. Azaroaren 25ean, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean, Euskal Herriko txoko gehienetan bezala, Leitza ere kontzentrazioa egin zen *Emakumeen aurkako erasorik ez* lelopean. 40 lagun inguru bildu ziren Lopeneko iturrian.

Saharar herriari laguntza

Leitzako Saharari Laguntza Taldearen ekimenez, janari bilketa eginen da aste honetan. Lekaleak, arraza, olio eta atun zein sardintak biltzea da asmoa,

eta horretarako Jubilatuen Tabernara eraman beharko dira janariak 17:00etatik 19:30era bitarte. Horrez gain, herriko dendetan ere kuxkak paratuko dira.

Ekudortarrak Gabon Gaua elkarrekin

Abenduaren 24an, Leitza bizi diren ekudortarrek Gabon Gaua elkarrekin ospatuko dute eskolan. Gainera, beste zabaltze aldera, beste herrietako ekudortarrak ere gonbidatu dituzte. Hilaren 29an, berriz, Ekuadorko kultura hobeki ezagutzeko festa antolatu dute.

Jeiki Abesbatzaren kontzertua

ttiipi-ttapa

Abenduaren 23an, Leitzako Jeiki Abesbatzak kontzertu berezia eskainiko du herriko Migel Donearen parrokiaren Sinfonietta Academica Orkestra izan den lagun. Emanaldia bi zatitan banatu dute. Ekitaldiaren lehen saioan, Ga-



ARGAZKIA: WWW.SUTAGAR.COM

Su Ta Gar eta DJ Bertso azaroaren 23ko parrandan

Jende ugari bildu zen Atakabeltz Gaztetxeak azaroaren 23an antolatu zuen gau berezira. Emanaldian, Su Ta Gar izan zen protagonista eta gonbidatu nagusia. Orotara, 250 lagun inguru bildu ziren eta hasieran halako jendetza egotea nahikoa zaila zirudien arren, gaua igaro ahala ez zen inolako arazorik izan. Gorosabeldarrek *Jainko hilen uhartean* 2006an kaleratutako azken diskoko abesti ugari kantatu zituzten. Hauekin batera, baita *JoTa Ke* eta *Itxaropena* bezalako kantu ezagunak ere. Rock doinuaren ostean, DJ Bertso (Oskar Estanga) igo zen Gaztetxekeo tranpaldotik gainera eta honek musika brasildarra, tradizionala, modernoa... denetarik jarri zuen gauari segida emateko.



bonetako abesti batzuk abestuko dituzte eta hemen ez dute gonbidatuaren laguntzarik izango. Bigarren zatian, al-diz, Sinfonietta Acade-

mica lanean hasiko da eta elkarrekin, Mozarten meza delakoa abestuko dute, hau da, *Missa Brena in Major Kw 259* Mozart obra.

luis
cestau
baraibar

arkitekto
teknikoa

leitza
607204485

lucésba
@
msn.com

gaztelu scl

iturgintza

kalefakzioa · saneamendua · gasa

Tfnoa: 948 510 086 · 948 510 156
Faxa: 948 510 856
LEITZA

BAZTAN

Baztan ezagutzeko 15 ibilbide megalitiko inauguratu dituzte

Lanen aurrekontua 69.594 eurokoa da eta Gobernuak %64,22a emanen du

Maite OTEIZA

Cederna-Garalurrek prestatutako Nafarroako Mendialdea Dinamizazio Planaren barnean, Baztani dagokion proiektua inauguratu zuten Otsondon azaroaren hondarrean, Cederna-Garalurreko ordezkariak, Baztango Udaleko agintariak eta Nafarroako Gobernuo Kultura eta Turismo kontseilariak. Udalaren proiektu honen aurrekontua 69.594,20 euroko izan da, eta %64,22a Kultura eta Turismo Departamentuak eman du.

Ibilbide hauek Josu Cabodevilak eta Itziar Zabaltzak markatuak izan dira, eta «Baztango edesti aurreko orotarriak» ezagutzeko aukera ematen dute, kanpotarrei zein bertakoei.

15 ibilbide dira, eta horretarako mapa bat kaleratu dute. Hauek dira ibilbideak: **Arizakun** (Bertako eskola zaharra eta frontoia bisita dai-

tezke. Maistrugain estazio megalitiko dago. 13,8 kilometro); **Alkurruntz** (zenbait megalito eta estazio sismografiko daude. 7,7 kilometro). **Elorrieta** (Elorrietako estazio megalitikora xenda. 6,250 kilometro); **Xorroxin** (Urjauzia eta basoa. 6,350 kilometro); **Iñarbegi** (Iñarbegiko auzora bisita. 14,025 kilometro); **Baztangoiza** (Urdazubitik heldu den Donejakue bidearekin bat egiten du). **Arizkungo plaza** (12,215 kilometro); **Gaztelu Zokoa** (Amaiurko errotako presaraino (1,450 kilometro); **Elizondoa** (Elizondoko kuartela eta Sasakaitz iturria. 8,430 kilometro); **Beartzun** (Bartzungo mendien barnat 13 kilometro); **Basabar** (estazio megalitikatik ibilbidea (7,630 kilometro). **Ibaineta** (Ibainetako Zelaiako eskualde megalitikatik xenda. 5,100 kilometro); **Sorginen Bidea** (Baztan eta Xareta



ARGAZKIA: PATRIZIA LEIZA

Ikaspilota Topaketa arrakastatsua Elizondon

Pilotan aritzeko aitzakiarekin, ikasleen arteko harremanak sendotzeko Ikaspilota Topaketa egin zuten Berako Labiaga, Lesakako Tantarumairu eta Baztan Ikastolako 85 ikaslek azaroaren 28an Elizondon. 9:30etik aitzinera, beroketak egin eta txoko ezberdinetan banatu ondoren, ordu eta erdiz pilotan aritu ziren. Unai Apeztegia pilotari profesionala ere gonbidatua zuten antolatzaileek, eta ez zuen hutsik egin, ikasleekin pilotan aritu zen. Ondotik kiniela egin zuten, segidan jokatu zen partidaren emaitza zein izanen ote zen asmatzeko. Mikel Goñi eta Iñaki Otxandorena ere joatekoak ziren, baina azkenean ezin izan zuten joan. Hala, Unai Apeztegiak hiru irakaslerekin jokatu zuen: Unai Apeztegia-Patrizia Leiza eta Juanjo Atxa-Joseba Lasarte. 12-11 irabazi zuten lehenbizikoak. Ondotik, sari banaketa egin zuten: Asegarceko kamiseta eta esku pilotak kiniela asmatu zutenentzat, eta gainerakoek aukeran izan zituzten Lur dantzaleku kamisetak, erlojuak eta txapak, Nafarroako Kutxako kamisetak, biserrak, pilotarien argazkiak... Antolatzaileak kontent ageri ziren egunak izandako arrakastarekin, eta bide batez, eskerrak eman nahi izan dizkiete Baztan Ikastolako Guraso Elkarteari (gosaria eskaini eta laguntzeagatik), Lur dantzalekuari eta Nafarroako Kutxari (emandako opariengatik) eta bereziki Unai Apeztegiari, bere esker oneko borondateagatik.

arteko mugako mendiak. 12,940 kilometro); **Infernuko Errota**, Baztan eta Etxalar arteko muga (5,100 eta 7,7 kilometro). **Aratxuri** Belateko Santa María ermita (1,950 kilometro); **Abartan** (Basaburuako herriak.

12,770 kilometro).

Mendiaren inguruko bi emanaldi

Baztango Mendigoi-zaleak antolatuta, bi bideo emanaldi egingen dira hurrengo asteetan

Arizkunenean. Hilaren 28an, Patxi Egillorrek *De los Pirineos al Himalaya* emanaldi eskainiko du eta urtarillaren 4ko saioak *7 erratzuar Nepal* du izena. Biak ere 20:00etan izanen dira.

ITURRALDE
pvc & aluminio

☎ 667 264 025 • 948 581 967
✉ maxene@terra.es

Nafarroan
ATV kontzesionario berria

Autoquad XL (TUTERA)

CONCESIONARIO OFICIAL
SUZUKI

ZERBITZU OFIZIALA BIKI BAT TAILERRA • ELIZONDO • Tfnoa: 948550898
www.autoquadxl.com

BAZTAN

13 hilabetetako lanen ondotik Elizondoko elizak ireki ditu ateak

Abenduaren 8an egin zuten inaugurazio ekitaldia

ttipi-ttapa

Elizondoko Santiago Elizak berriro ireki ditu ateak. Barrenetik gutziz eraberritua dute, 600.000 euroko gastua eginez. 13 hilabetetako lanen ondotik abenduaren 8an egin zuten inaugurazio ekitaldia, eta han izan zen, bertzeak bertze, Francisco Perez Iruñeko artzapezpikua. Eliza 1920an inauguratu zen lehenbizikoz, 1913an antzinako eliza uholdeek hondatu baituzten.

Alde batetik zoladura berri dute. Tarima zaharra kendu dute, eta irradiazio-berogailua jarri; galderak eta elektrizitate sistema eraberritu dituzte eta zolan zeramika paratu dute. Barrialdea ere margotu dute. Iruña-Uharteko

Beis Margoak-ek pintatu du barren aldea, eta Art3 enpresak erretaula zaharberritu du. Koroaren azpian bi horma-irudi ere margotu dituzte Ana Larrui eta Fernando Gorostidiak.

Bertalde, kristaleria eta organoa zaharberritzen ere ari dira. Lerro hauek idaztean oraindik bukatu gabe zegoen lana. Kristaleriarenkin Oliten ari dira lanean, eta erromatar garaino organoa Murchanten. Kanpokaldean ere konponketak egin dira: sarreran lauza berriak paratu, eliz atarian burdin sarea jarri...

Lanakegiteko Artzapezpikuak %10eko laguntza eman du; Vianako Printzea Institutuak ere erretaularen eraberritzea subentzio-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Nafarroako eta Elizondoko elizetako ordezkariak inaugurazio egunean.

natu du eta Nafarroako Kutzaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* kanpainaren bidez ere laguntza jasoa da. Herritarrek azolanean ere lan handia egin dute.

Kolegioko kanpaiak eta erlojua Lizarrara

Azaroaren 23an hasi ziren Lekarozko kolegioko elizako dorreko kanpaiak eta erlojua desmuntatu eta garraiatzen. Kolegioa bere egin zuen Nafarroako Gobernuak 3,3 milioi euroren truke, eta azken erabaki hau ere Gobernuak hartutakoa da.

Baztango Udalak, bere aldetik, horren inguruan deus ez zekiela adierazi du, nahiz eta eliza Balleko Udal Hirigintza Planean babes bereziko eraikina dela adierazi. Antza, Lizarrara eraman dituzte.

Kolegioaren gainetako ondasunak lehenago eraman ziren. Liburutegia, museoko objektuak, elizako irudiak eta abar hainbat lekutara garraiatu ziren, Zangozara eta Iruñera, bertzeak bertze. Kanpaiak 1895 aldera paratu ziren dorrean eta erlojua 1908an ailegatu zen Lekarozera Frantziatik.

San Andresak Azpilkueta eta Zigaurren

Azaroaren 30a, San Andres eguna, Azpilkuetan eta Zigaurren besta izan zen. Azpilkuetako zaindaria izanik, lehen herriko bestak orduan ospatzen ziren; gero, ordea, San Ferminetara aldatu zituzten. Meza batekin ospatu zuten eguna, eta larunbatean herriko elkarte afaria eta dantzaldia izan zuten. Zigaurren, berriz, ospakizuna larunbatera pasatu zuten. Bertako ermitan meza eta jarraian luntxa izan zuten.

Gierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki tipikoak - Etxeko giroa
Iturriotz auzoa - Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ - MUGAIRI

POTTOKI
Baztanberri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com
Astelehenerdik larunbatera:
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

Okindegia Jatetxea
Uxoa
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxoa!
Ordoki Industriaidea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostata
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Sorginen Museoko hamar milagarren bisitaria saritu dute

Valentziara joan da saria eta produktu sorta eta Errotaberrin egonaldia irabazi ditu

Margari eta Koro

Sorginen Museoak zer errana ematen segitzen du, eta oraingoa ere berri onak emateko. Joan den uztailaren 20an ireki zen Zugarramurdiko Sorginen Museoa abenduaren 7an jaso zuen hamar milagarren bisitaria: Juan Miguel Garcia Sanchez. Museoa ezagutzeaz gain, opari berezia jasota joan zen etxera valentziarra, hamar milagarren bisitaria izatearen saria hartuta, alegia. Sari gisa, Nafarroako Gobernuak emandako zonaldeko produktu sorta eta sei pertsonendako asteburu bat Zugarramurdiko Errotaberri landetxean. Sei pertsonendako lekua duen errota zaharberria da Errotaberri.

Sariduna Kuenkatik zetorren bidai antolatut batean. Zugarramurdiko museo berria ezagutzera etorri eta arras kontent zegoen oparia jasotakoan.

Kenpo-Kai ikastaroek harrera ona

Uste baino arrakastatsuagoa suertatu da aurtun lehenbiziko aldiz antolatutako Kenpo-Kai ikastaroa. Hasieran Leorlaseko eskoletako gimnasioan ematen hasi ziren, baina pittakapittaka jende kopurua gehituz joan zen, eta gaur egun 38 lagun ari dira. Hainbertze lagun ez dira gimnasioan sartzen eta Zugarramurdiko pilotalekuan ari dira duela hilabete bat.

Haurrak ere gustura ari dira eta 15 laguneko taldea osatu da, hauek larunbatetan aritzen dira, 11:00etatik 13:00etara.

ARGAZKIA: UTZITAKOIA;
KORO ETA MARGARI

Goian museoko hamar milagarren bisitaria ageri da saria jasotzerakoan; beheko argazkian, berriz, ageriko gelditzen da Kenpo-Kai ikastaroek herrian izan duten harrera ona.



SENPERE

Amotzeko eskolako irakasleen etxea botako dute hiru ikasgela berri eraikitzeko

Euskaltzaindiak Zaldubiri buruzko hitzaldiak egingen ditu Elkartetxean

Franck DOLOSOR

Amotzeko auzoa hazten ari da gelditu gabe eta geroan ere berdintsu segituko du. Amotzeko eskolan haurren kopurua haunditzen ari da azkarki eta beraz, ikasgela berriak behar dituzte. Iazko urritik irakasleen etxea ez da gehiago baliatzen eta hala, etxe hau botatzeko deliberatu du Herriko Etxeak. Toki horretan hiru ikasgela berri altxatu nahi dituzte. 300.000 euroko gastua sortu du horrek eta hautetsiek dirulaguntzak galdetuko dizkiote estatuari eta Paueko Kontseilu Nagusiari.

Euskaltzaindiaren hitzaldiak

Euskaltzaindiak, gure mintzairaren akade-



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

1982an sortutako biltzarra

Aurten 25 urte beteko dituzten senpenterrek lagunen arteko biltzarra egin dute berriki.

miak, Gratien Adema zena omenduko du bere heriotzaren mendemuga kari. Euskaltzainek zenbait hitzaldi eskainiko dituzte Zaldubiri buruz abenduaren

20an 17:00etan. Euskaltzale honen omenaldian Henri Duhauk liburu berria plazaratuko du herriko ikastolari izena eman dion senpentera hobeki ezagutzeko.

Kattin gogoan

Kattin Bergara, sortzez Borthaire, zenaren heriotzak samindua sortu du herrian. Untsalaz, berriemaileek ez dituzte beren senti-

mentuak erakutsi behar beren artikuluetan bainan Kattini omenaldi bat egitea eta eskerak ematea ezinbertzekoa zait. Lerro hauek izkiriatzen badituzte Kattini esker da. Ehunka senpenter gaztek bezala Kattinekin, hain ezagutua eta maitatua zen eskola emalearekin, ikasi nuen idazten eta irakurtzen. Milesker, beraz, eta zure etxekoei doluminak.

Olentzeroren bisita

Olentzero abenduaren 21ean ortziralarekin etorriko da Senpererat. Eskoletako haurrak karraketan barna ibiliko dira ikazkin maitagarriekin goizeko 9:30etik goiti.

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra

edredoi nordikoak
ohe estalkiak
albornozak
mantelak
kuxinak
toailak
maindireak
edredoi-azal nordikoak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

ZORIONAK

SARA

Olentzero plazatik pasatuko da larunbatean haurren agurtzeko

Presoei buruzko legea errespetatzea galdetuko da urtats bezperan

Xan HARRIAGUE

Etkez etxe opariak eta ikatza banatzen ibili baino lehen, Olentzero herriko plazatik pasatuko da heldu den larunbat arratsaldean. Arribatzean, azken metroetan, hiru eskoletako haurrek lagun izanen ditu bidea irekiko baitiote kriseluekin. Herriko Etxearen atarian, ongi etorria egingen diote Eguberrietako kantuak eskainiz. Ondotik Olentzerok bere bihotz ona erakutsiko die subila ekarriz, hau da, goxozik betea izaten den enborra. Haurrekin egon eta gero, bere bidea segituko du ondoko egunetan lan anitz izanen baitu, baina herritarrek besta giroa segituko dute aperitifia egingen baita Sarako kantari eta musikariek.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Aurten ere ongi etorri beroa egingen diote haurrek Olentzerori.

Elkarretaratzea

Euskal Presoak Euskal Herritarzearen aldeko elkarretaratzea egingen da usaian bezala urtats bezperan. Plazan egingen da, 19:00etan, Europa mailan bozkantua izan den legearen errespetua galdetzeko.

Legeak dio presoak haien etxeetatik ahal bezain hurbil bete behar dutela kondena, baina gaur egun ez da hala izaten. Anitzen ustez, zigorra gogortzeko herriatik ahal bezain urrun kartzelaraten dituzte. Horrelako neurriekin,

kondenatzeaz gain, familiarrek ere jasaten dituzte ondorioak, bisita labur batengatik kilometro anitz egin behar baitituzte. Gisa berean, aitzineko ortziraletan, elkarretaratzea usaian bezala egingen da, 19:00etan.



PERTSONAIA

Fred BERRUET

Gure Irratian da berriz 'Diskoteka Ideala' saioarekin

Urte batzuk pausako hartu eta gero, Fred Berruet irratiara itzuli da. Joan den urritik aitzinera Gure Irratiko (106,6/90,5 FM) *Diskoteka Ideala* saioa aurkezten du azteazken eta ortzegun guziz, 15:30ean eta 22:00etan, hurrenez hurren. Aldi oro disko bat aztertzen du diskoteka ideala osatu arte. Orain arte estilo anitz jorratu ditu: PJ Harveyren *Rid Of Me*, Marvin Gayeren *What's going on?*, Mobyren *Play* eta The Clashen *London Calling*, bertzeak bertze. Entzuleen iritzia jasotzeko, eta ondoko saioan aztertuko duen diskoa entzun ahal izateko web orria ere sortu du: www.blogak.com/diskoteka.

Iñaki Alzuet margoak
 Fabrikatzaile - Berrabiltzaileak
 Dekoratiboa (estalki, bidulak...) |
 Plastikoak - Lakatuak eta berrabiltzaileak
 Karmela Etxe - Landibar Auzo - 31711 URGAZUBI
 Tfnoa: 659 862 417

HERBIBO
 ETXEBE
 EDENTEGIA
 CAFÉ DE LA MAIRIE
 T: 0559542519
 Maïxan eta Véronique
 KABA

**ttipi
 ttapa**
 ☎ (0034) 948 635458

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
 AGENTZIA

- Zurich Asegurua
Autza, etxebizitza, istripu eta biotza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Enpresa Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baseri, bodega, pisu, etab... salmenta eta alkatua
- Gestoria
Bilgailuen transferentziak, gidatzeko karmetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO
 Tfnoa eta Faxa: 948 580 804
anzabal@anzabal.com

ZOANSA

SEAT
 VW
 HYUNDAI
 Audi

ZOANSA
 MARKA GUZTIAK KONPONKETA

Banarta, 2 - Alkalegia industrialdea
 LESAKA (sarrera Beratik)
